


# Euskadiko gazteei buruzko datu estatistikoaren analisia

## 2017ko urtea



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

ENPLEGUKO ETA GIZARTE  
POLITIKETAKO SAILA  
*Gazteria Zuzendaritza*

DEPARTAMENTO DE EMPLEO  
Y POLÍTICAS SOCIALES  
*Dirección de Juventud*



Aisia eta kirola / Ocio y deporte

## Apirilaren 6a: Jarduera Fisikoaren Munduko Eguna


### Euskadiko gazteen ia erdiek kirola egiten dute 3 aldiz edo gehiagotan astero

Apirilaren 6an ospatzen da **Jarduera Fisikoaren Munduko Eguna**. Hori dela-eta, 15 eta 29 urte bitarteko gazteek egiten duten kirolari buruzko datuak aurkezten ditu Gazteen Euskal Behatokiak. Datuok lau urtero burutzen den Euskadiko Gazteak ikerketatik datoz. Azken datuak 2016koak dira.

Euskadiko gazteen % 49k kirola egiten dute astero 3 aldiz edo gehiagotan. Portzentaje honek gorakada handia izan du 2012 eta 2016 urteen artean, % 40,2tik gaur egungo zenbakira.

Kirol-jarduera erregularrak gora egin du gizon gazteen eta emakume gazteen artean. Hala eta guztiz ere, haien arteko jauzi nabarmena dihardu: gizon gazteen % 60,3k kirola egiten dute astean hiru aldiz edo gehiagotan; neska gazteen artean, oster, % 37,2k.

Kirol-jarduera erregularra (astean 3 aldiz edo gehiago) egiten duten 15 eta 29 urte bitarteko gazteak, sexuaren arabera (%)




Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (Euskadiko gazteak 2016 ikerketaren datuen aurrerapena)

Euskadiko gazteek gehien egiten dituzten kirolak honako hauek dira: futbola, gimnasia mota ezberdinak (aerobica, fitnessa, pilatesa, zumba, etab.) eta korrika egitea. Sexuen arteko ezberdintasunen arrazoia topatzeko futbolari so egin behar diogu. Astean kirola 3 aldiz edo gehiagotan egiten duten gizonen % 33,5ek futbolekin jolasten dutela aitortzen duten bitartean, emakume gazteen artean % 5,4 baino ez.

Emakume gazteek, aldiz, neurri handiagoan egiten dituzte gimnasia mota ezberdinak (aerobica, fitnessa, pilatesa eta horrelakoak) gizon gazteek baino. Korrika egiteari dagokionez ere, neska gazteek mutil gazteek baino gehiago egiten dute.

Kirola astean 3 aldiz edo gehiagotan egiten duten 15 eta 29 urte bitarteko gazteen artean gehien egiten diren kirolak, sexuaren arabera (%)



*Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (Euskadiko gazteak 2016 ikerketaren datuen aurrerapena)*


Gazteen inguruko datu gehiago ezagutzeko, kontsulta ezazu Gazteen Euskal Behatokiko webgunearen Estatistikak atala.

## **Euskadiko bost gaztetik bat gazteen lonja edo lokaletako kide da**

### ***Lonja edo lokaletako kide izatea ohikoagoa da mutilen artean eta 20 urtez azpiko gazteen artean***


Euskadiko 15 eta 29 urte bitarteko gazteen % 20,3k gazteen lonja edo lokaletako kide direla diote. Gainera beste % 29,6k adierazi dute lehen izan zirela baina jada ez, eta % 49,9k, aldiz, azaldu dute ez direla lokal mota horietako kide izan inoiz.

Orain kide direnen ehunekoa 2012an jasotakoa (% 19,5) baino handixeagoa da. Lehen kide izandakoen zifra ere handiagoa da 2016an [2012](#)an baino.



Lonja edo lokaletako kidesuna zabalduago dago 15 eta 19 urte bitarteko gazteen artean (% 28,0 kide dira gaur egun) eta jaisten doa adinak aurrera egin ahala (25 eta 29 urte bitartekoen artean % 10,9 dira kide). Izan ere, 20 urtetik gorako taldeetan gehiago dira lehen kide izandako gazteak orain kide direnak baino.

Alde handia dago gizon eta emakume gazteen artean: 15 eta 29 urte bitarteko gizonen % 28,3 lonja edo lokal bateko kide dira gaur egun; adin bereko emakumeen artean, berriz, % 11,9.



Bestalde, aztertzen badugu zenbat gazte joaten diren lonjetara eta zenbatero joaten diren (kide izan zein ez), ikus dezakegu Euskadiko 15 eta 29 urte bitarteko gazteen % 6,7 egunero edo ia egunero joaten direla lokaletara. Gutxienez astean behin joaten direnak hartzen baditugu kontuan ehunekoa % 20,8ra igoten da.

Zifra horiek gazte guztiei dagozkie. Orain lonja edo lokaletako kide direnak soilik aukeratzen baditugu, ikusten dugu laurden bat baino gehixeago (% 28,7) joaten dela egunero edo ia egunero lonjetetara. Eta % 87,2 astean behin gutxienez.

Aipatu behar da gazte gutxi batzuk, orain kide izan arren, astean behin baino gutxiagotan joaten direla lonjetara (oraingo kideen % 6,1 hain zuzen ere) eta badaude beste gazte batzuk noizero joaten direla lokaletara nahiz eta orain kide ez izan (kide ez direnen % 3,9 gutxienez astean behin joaten dira).

| Gazteen lonja edo lokaletara joateko maiztasuna, gaur egun lokal horietako kide izatearen arabera |               |                 |                    |
|---------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------|-----------------|--------------------|
| (%)                                                                                               | Gazte guztiak | Kide dira orain | Orain ez dira kide |
| Egunero edo ia egunero                                                                            | 6,7           | 28,7            | 1,1                |
| Astean hiru edo lau egunetan                                                                      | 5,5           | 22,9            | 1,1                |
| Astean behin edo bitan                                                                            | 8,6           | 35,6            | 1,7                |
| Hilean behin edo gehiagotan                                                                       | 2,2           | 6,7             | 1,0                |
| Gutxiagotan                                                                                       | 3,7           | 2,0             | 4,2                |
| Inoiz ez edo ia inoiz ez                                                                          | 72,6          | 4,1             | 90,0               |
| Ed/Ee                                                                                             | 0,7           | 0,0             | 0,9                |
| GUZTIRA                                                                                           | 100           | 100             | 100                |
| (n)                                                                                               | 1500          | 281             | 1219               |

*Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (Euskadiko gazteak 2016 ikerketaren datuen aurrerapena)*

Aurkeztutako datuak "Euskadiko gazteak 2016" ikerketaren aurrerapen-datuak dira. Ikerketa hori Gazteen Euskal Behatokia ari da lantzen eta hori burutzeko Euskadiko 15 eta 29 urte bitarteko 1500 gazte elkarrizketatu ditu. Elkarrizketa horietan hainbat gairi buruz galdetu zaie, horien artean gazteen lonja eta lokaletako kideetasunari buruz.



## 2016an, 15 eta 29 urte bitarteko 1046 emakumek genero-indarkeria salatu zuten Segurtasun Sailaren arabera

**Indarkeria salatu zuten emakumeen artean emakume gazteen pisuak gora egin du eta gaur egun % 28koa da**


Azaroaren 25ero ospatzen den **Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko eguna** dela-eta, [Gazteen Euskal Behatokiak](#) Segurtasun Sailak emandako datuak aztertu ditu. Datuok emakumeenganako indarkeriaren ingurukoak dira.

Datu hauek EAEko poliziak ofizialki zenbat emakume eta zenbat indarkeria-kasu erregistratzen dituen adierazten dute. 2016an, Euskadin, 3774 emakume genero-indarkeriaren biktima izan ziren. Haietatik % 28 (1046) 15 eta 29 urte bitarteko emakumeak ziren.

Genero indarkeria jasan duten emakumeen kopuruak behera egin du aurreko urtearekin konparatuz, eta 3999tik 3774 biktimara pasatu dira. Murrizketa 30 urte baino gehiago dituztenen artean gertatu da, gazteen artean berriz biktima bat gehiago aurkitzen dugu 2016an.

Adin-taldean arabera banaketari erreparatuz gero, 2016an honako hau antzematen dugu: 262 emakume (guztien % 7) 15 eta 19 urte bitartekoak ziren; beste 363 emakume (guztien % 10) 20 eta 24 urte bitartekoak ziren; azkenik, 421 (guztien % 11), 25 eta 29 adin tartekoak ziren.

2016an emakumeen aurkako indarkeriaren biktima izan diren emakumeak Euskadin, adin-taldean arabera (zenbaki absolutuak)




*Iturria: Gazteen Euskal Behatokiak egina, Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailak emandako datuak oinarri hartuta*

Gehienetan emakumeen aurkako indarkeria bikotekideak edo bikotekide ohiak egindakoa izaten da (emakume gazteen % 78a). Gero familia barruan (bikotekideak edo bikotekide-ohiak egindakoa izan ezik) jasandakoa dator (% 12). Azkenik, emakume gazteen % 10ak bere sexu-askatasunaren aurka jasandako indarkeria salatu zutenak izan ziren.

Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeen tasek (adin-talde bereko 1000 emakumeko kalkulatuak) ezberdintasun nabariak agertzen dituzte emakume gazteen eta 30 urtetik gorakoen artean (‰ 7,5 eta ‰ 3,3 hurrenez hurren). Lurralde historikoen arabera Araban ematen da alderik sakonena. Lurralde honetan ematen dira emakumeen aurkako indarkeriaren tasarik altuenak.


**Emakumeen aurkako indarkeriaren tasak 2016an, adin-talde handien eta lurralde historikoaren arabera (tasak 1000 emakumeko)**



*Iturria: Gazteen Euskal Behatokiak egina, Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailak emandako datuak oinarri hartuta*

Emakumeen aurkako indarkeriaren tasen bilakaerari erreparatzen badiogu, zera ikus dezakegu: 15 eta 29 urte bitartekoen tasa pixka bat igo da 2015etik 2016ra baina orokorrean 2009-2016 aldian nahiko egonkor ibili da.

**Emakumeen aurkako indarkeriaren tasen bilakaera adin-talde handien arabera (tasak 1000 emakumeko)**



*Iturria: Gazteen Euskal Behatokiak egina, Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailak emandako datuak oinarri hartuta*

Datuok eta beste hainbat Gazteen Euskal Behatokiaren [Estatistiketan](#) kontsulta daitezke, **Balioak eta jarrerak** atalaren **Emakumeenganako indarkeria** azpiatalean, hain zuzen ere.

Gazteen Euskal Behatokiak **Beldur Barik** egitasmoa zabaltzen lagundu nahi du. Egitasmo hau Emakundek eta Eudelek sustatzen dute, berdintasunaren aldeko eta emakumeenganako indarkeriaren aurkako Berdinsarea izeneko udal-sarearen baitan.

Egitasmoaren helburua gazteen artean indarkeria sexista prebenitzea da. Programaren osagai nagusienetako bat ikus-entzunezko adierazpen artistikoak saritzen dituen lehiaketa da, 12 eta 26 urte bitarteko gazteei zuzendua. Adierazpen horietan, neskek eta mutilek erakusten dute emakumeenganako egungo desberdintasun-egoerari nola egiten dioten aurre, errespetuan, berdintasunean, askatasunean, autonomian, ardurakidetzan eta indarkeria sexistaren gaitzespenean oinarrituta.

Beldur Barik ekimenari buruz gehiago jakin nahi baduzu, jo ezazu bere webgunera <http://www.beldurbarik.org/> edo beren [Facebook](#) eta [Twitter](#) profiletara.


**Azken 20 urteetan aurrerapen handia eman da gazteen artean emakumeen aurkako indarkeriaren gaitzespen formalean**

**Ezkutuko indarkeri moduak, hala nola, mespretxuak egitea, gauzak erabakitzen ez uztea eta iraintzea dira bilakaera deigarriena izan dutenak**

Azaroaren 25ean **Emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako eguna** ospatzen denez azaroa une ona da bortizkeria sexistari dagokionez gazteriaren jarreraren gainean hausnartzeko.

Horretarako 15 urtetik 29 urtera bitarteko Euskadiko gazteek indarkeria mota desberdinei buruz egiten duten balorazioa hartuko dugu oinarri. Informazioa Euskadiko gazteak ikerketaren aurrerapen datuak dira. Ikerketa hori [Gazteen Euskal Behatokiak](#) lau urtean behin burutzen du eta bildumaren azken alea gaur egun publikatzeko prozesuan dago.

Ikerketa honek, besteak beste, EAEko gazteek indarkeria mota desberdinei buruz egiten duten balorazioa ezagutu nahi du, indarkeria fisiko eta sexu-abusuetatik hasi eta hitzezko indarkeriaraino (irainak, mehatxuak, gutxiespenak eta abar), indarkeriaren piramide deritzonean definitzen diren kontzeptuei jarraikiz.




Piramide horrek lau maila dituela jotzen badugu, ikerketa honetan 2. eta 3. mailak hartu dira kontuan. 2. mailan umiliazioa, desbalorizazioa, bazter uztea, gutxiestea, xantaia emozionala eta erruduntzea daude; 3. mailan, berriz, eraso fisikoak, bortxaketa, sexu-abusua, mehatxuak, oihu egitea eta iraintzea.

Ikerketa honetarako erabili den galdera sortan, honako indarkeria mota hauen balorazioa egin da:

- ✓ Iraintzea
- ✓ Gauzak erabakitzen ez uztea
- ✓ Mehatxatzea
- ✓ Etxetik irtetea debekatzea
- ✓ Sexu-harremanak borondatearen aurka izatera behartzea
- ✓ Mespretxuak egitea

Emakumeen aurkako indarkeria forma horien larritasunari buruz azken ia 20 urteetan izan den eboluzioari begiratzen badiogu, ikus daiteke aurrerapen handiak egin direla emakumeen aurkako indarkeriaren gaitzespen formalean.

Agerikoa da Berdintasun Planek balio eta jarrerak aldatzeko eta sentsibilizatzeko egindako lana eraginkorra izan dela, 1997an erregistratutako balioei begiratzen badiegu.



1997an, Prospekzio Soziologikoen Kabineteak eginda "[Tratu txarrak bikote barruan](#)" (gaztelaniaz bakarrik) ikerketako datuen arabera, EAEko gazteen % 82k oso larritzat jotzen zuten bikotekidea sexu-harremanak izatera behartzea. Balio hori ia maximora igo da kolektibo berean, 2016an (% 97). Etxetik irtetea debekatzea gazteen % 46k jotzen zuten oso larritzat 1997an eta 2016an, berriz, balio horrek % 91raino egin du gora. Mehatxatzea oso larritzat jotzen zuten EAEko gazteen % 51k 1997an eta 2016an, berriz, % 91k jo dute oso larritzat.

Hiru jokabide horien eboluzioa oso garrantzitsua izan da, baina are esanguratsuagoa da 2016an gaitzespen-balio baxuenak lortu dituzten hiru jokabideena (mespretxuak egitea, gauzak erabakitzen ez uztea eta iraintzea).

1997an, EAEko gazteen soilik % 11k uste zuten bikotekideari mespretxuak egitea oso larria zela. Balio hori % 74raino igo da 2016an.

Bikotekideari gauzak erabakitzen ez uztea oso larritzat jotzen zuten EAEko gazteen % 31k, baina 2016an proportzio horrek % 69raino egin du gora.

Azkenik, bikotekidea iraintzea gaur egun (2016an) oso larritzat jo dute EAEko gazteen % 60k, eta 1997an, berriz, % 14k baino ez.

[Gazteen Euskal Behatokia](#)k [Beldur Barik](#) egitasmoa zabaltzen lagundu nahi du. Egitasmo hau Emakundek eta Eudelek sustatzen dute, berdintasunaren aldeko eta emakumeenganako indarkeriaren aurkako Berdinsarea izeneko udal-sarearen baitan. Egitasmoak Arabako, Gipuzkoako eta Bizkaiko foru aldundien babesa eta diru-laguntza du, bai eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza eta Enplegu eta Gizarte Politikarako Sailen, EHU-Euskal Herriko Unibertsitatearen eta EITB lankidetzaren ere.

Egitasmoaren helburua gazteen artean indarkeria sexista prebenitzea da. Programaren osagai nagusienetako bat ikus-entzunezko adierazpen artistikoak saritzen dituen lehiaketa da, 12 eta 26 urte bitarteko gazteei zuzendua. Adierazpen horietan, neskek eta mutilek erakusten dute emakumeenganako egungo desberdintasun-egoerari nola egiten dioten aurre, errespetuan, berdintasunean, askatasunean, autonomian, ardura-kidetzan eta indarkeria sexistaren gaitzespenean oinarrituta.

Beldur Barik ekimenari buruz gehiago jakin nahi baduzu, jo ezazu bere webgunera <http://www.beldurbarik.org/> edo beren [Facebook](#) eta [Twitter](#) profiletara.


## **Euskadin 15 eta 29 urte bitarteko hamar gaztetik seik uste dute beren gurasoek gaztetan zuten egoeran baino hobean daudela**

**Iritzi horretakoak gehitu egin dira baina oraindik 2008an baino gutxiago dira**

[Gazteen Euskal Behatokiak](#) aztertu du nola baloratzen duten gazteek beren egoera, beren ustetan gurasoek adin horretan zuten egoerarekin alderatuta. 15 eta 29 urte bitarteko gazte gehienek (% 58,5) uste dute hobe daudela beraiek, beren gurasoak gazte zirenean baino.

Hala ere, pertzepzio hori nabarmen aldatu da azken urteetan. 2008an, lau gaztetatik hiruk uste zuten hobe zeudela beraiek, beren gurasoak beren adinean baino (% 76,7); pertzepzio hori beheratzen joan zen eta 2013an ozta-ozta gazteen erdiak uste zuen gurasoek bere adinean zuten egoeran baino hobean zegoela (% 51,1); ondoren, 2015ean, zertxobait goratu da beren gurasoak beren adinean baino hobe daudela uste duten gazteen kopurua (% 58,5), baina ez da iritsi 2008ko eta 2011ko balioetara.


**Beren gurasoek beren adina zutenean baino egoera hobean daudela uste duten 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoaren bilakaera (%)**



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (Euskadiko gazteak 2008 eta Emantzipazioa bilduma)

Ez da ikusi alde nabarmenik gizon eta emakume gazteek beren egoerari buruz egindako balorazioan, baina bai adina kontuan hartzerakoan, adinak pertzepzio desberdina baitakar. 15 eta 19 urte bitarteko gazteen % 74,9k uste dute gurasoek gaztetan zuten egoeran baino hobean daudela; 20 eta 24 urte bitarteko taldean % 62,7k iritzi bera dute; eta portzentajeak behera egiten du, % 44,2raino, 25 eta 29 urte bitartean


**Beren gurasoek beren adina zutenean baino egoera hobean daudela uste duten 15 eta 29 urte bitarteko gazteak, adin taldeen arabera (%)**



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, 2015

Adin taldeen artean dauden alde horiek azaldu ahal duen arrazoi bat (baina ez bakarra) okupazioarekin lotuta dago. Ikasten dabiltzaneren artean (20 urtetik beherakoen artean gehien-gehienak) % 68,5ek uste dute beren gurasoak gazte zirenean baino hobeto daudela beraiek; portzentaje hori % 51,3ra murrizten da lanean dabiltzaneren artean eta are gehiago, % 43,9ra, langabezian daudenaren artean.

**Beren gurasoek beren adina zutenean baino egoera hobean daudela uste duten 15 eta 29 urte bitarteko gazteak, okupazio nagusiaren arabera (%)**



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, 2015


Azaldutako datuak Gazteen Euskal Behatokiak egindako ikerketa batzuetatik datoz. Ikerketa horiek 15 eta 29 urte bitarteko gazteei eginiko inkestatan oinarritzen dira. [Euskadiko gazteen panoramika / Gazteen adierazleak 2015](#) argitalpen interaktiboan kontsulta daitezke datuok, "Balioak eta jarrerak" izeneko atalean, hain zuzen ere.

**Euskadiko hamar gaztetik bederatzik sexu aldaketaren alde daude,  
bai eta sexu bereko pertsonen arteko ezkontzaren alde ere**


**Hamarretik zortzik bizitzan zehar aukera sexualaz aldatzea posiblea dela pentsatzen dute**

Ekainaren 28an **LGTB+ (lesbiana, gay, transexual eta bisexualak) Harrotasunaren Nazioarteko Eguna** dela eta, [Gazteen Euskal Behatokiak](#) aditzera ematen ditu gai honi buruzko Gazteen iritziak.


Gazte gehienak sexu bereko pertsonen arteko ezkontzaren alde agertu dira (% 91), bai eta sexu aldaketaren aldekoak ere (% 86). Bi iritzi horiek hedatuago daude orain 2008an edota 2012an baino.




Bestalde, 15 eta 29 urte bitarteko hamar gaztetik zortzik uste dute pertsona batek bere bizitzan zehar bere aukera sexuala aldatu ahal duela eta harremanak izan gizonekin zein emakumeekin). Ideia horrekin ados daudenak nabarmen gehitu dira 2012tik 2016ra, %65 tik %83ra pasatu dira.



Aztertutako hiru ideia horiei buruz gizon eta emakume gazteek dituzten iritziak aztertu ondoren, ondoriozta dezakegu identitate sexualari buruzko jarrera irekiagoa dela emakume gazteen artean, gizon gazteen artean baino; bereziki orientazio sexuala aldaezina ez dela eta nahiaren orientazioa bizitzan zehar alda daitekeela islatzen duenean.



Adinaren arabera desberdintasunak txikiak dira. 25 eta 29 urtekoen artean soilik antzematen da sexu bereko pertsonen arteko ezkontzaren eta sexu aldaketaren aldeko kopuru zertxobait txikiagoa.




2016ko datuak "**Euskadiko gazteak 2016**" ikerketaren aurrerapen datuak dira. Ikerketa hori Gazteen Euskal Behatokiak lau urtean behin burutzen duen *Euskadiko gazteak* bildumaren barruan dago. Bertan 30 urtetik beherako gazteen iritzia eta jarrerak aztertzen dira, horretarako egindako inkesta baten emaitzak oinarri hartuta.

## **Euskadin hamar gaztetik zazpi errefuxiatuei laguntzak eta etxebizitza ematearen aldekoak dira**

### ***Ekainaren 20a, Errefuxiatuen Munduko Eguna***

Ekainaren 20an Errefuxiatuen Munduko Eguna ospatzen dela-eta, Gazteen Euskal Behatokiak euskal erakundeek errefuxiatuei laguntza eta etxebizitza emateari buruz gazteek duten iritzia plazaratzen du.


Euskadiko gazteen % 67,8 errefuxiatuei laguntzak eta etxebizitza ematearen aldekoak agertzen dira. Emakume gazteak gizon gazteak baino zertxobait aldekoagoak dira, eta 25 urtetik beherakoek adin horretatik gorakoek baino adostasun handiagoa azaltzen dute ideia horrekiko.



Gazteen jatorriak ere ezberdintasunak ekartzen ditu: atzerrian jaio direnen artean errefuxiatuei laguntza ematearen aldekoak batez bestekotik hamar puntu gora agertzen dira (% 77,2 eta % 67,8).

Dena den, eragin handien duten aldagaiak baloreekin eta ideologiarekin zerikusia dutenak dira, batik bat etorkinen sarreraren aldeko jarrerak. Etorkinen sarrera ahalik eta gehien erraztearen alde dauden % 90,7 errefuxiatuei laguntza ematearen alde agertzen dira.

Beste ezaugarri batzuek ere korrelazio positiboa dute errefuxiatuei laguntza ematearekin, hala nola, boluntario-lanak egiteak edo politikarekiko interesa izateak.




Aurkeztutako datuak Gazteen Euskal Behatokiak 2016an eginiko inkesta baten emaitzak dira. Inkesta horretan Euskadiko 15 eta 29 urte bitarteko gazteen lagin adierazgarria elkarrizketatu zen. Lagin hori 1500 gaztek osatu zuten (750 gizon eta 750 emakume) eta inkestan gai honi eta beste hainbat gairi buruz galdetu zitzairen. Hemen aurkeztu ditugun datuak "Euskadiko gazteak 2016" izenburuarekin argitaratuko den ikerketaren aurrerapen datu batzuk dira. Ikerketa hori Gazteen Euskal Behatokiak lau urtean behin burutzen duen bildumaren bostgarrena izango da eta bertan, aurrekoetan bezala, 30 urtetik beherako gazteen baloreak, jarrerak, iritziak eta portaerak aztertuko dira.

## Ingurumenaren zaintzari lotutako jokabideek bilakaera positiboa izan dute Euskadiko gazteen artean


### Ekainak 5a, Ingurumenaren Nazioarteko Eguna

Ekainaren 5ean [Ingurumenaren Nazioarteko Eguna](#) ospatzen dela-eta, [Gazteen Euskal Behatokia](#)k ingurumenaren zaintzarekin lotutako jokabideei buruzko datu batzuk plazaratzen ditu, Euskadiko gazteek zenbateraino betetzen dituzten jokabide horiek, hain zuzen ere.


Euskadiko 15 eta 29 urte bitarteko gazte gehienek diote sarritan jarraitzen dituztela ingurumena zaintzeko ondoko jokabideak: % 64k etxeko zaborrak hondakin motaren arabera banatzen dituzte, % 61 uraren kontsumoa murrizten saiatzen dira, % 59k garraio publiko kolektiboa erabiltzen dute edota beste batzuekin batera joaten dira kotxez, eta % 54k erosketak egiterakoan beren poltsa edo orga eramaten dute. Aitzitik, laurden bat bakarrik (% 23) saiatzen da gutxi enpaketatutako produktuak erosten.




2012tik 2016rako bilakaera aztertuz gero, ikus dezakegu berdin mantentzen dela etxeko zaborrak banatzen dituzten gazteen portzentajea (% 64, bai 2012an bai eta 2016an ere), pixka bat handitu dela garraio publiko kolektiboa edo kotxe partekatua erabiltzen dutenena (% 57tik % 59ra) eta dezente handitu dela sarritan uraren kontsumoa murrizten saiatzen direnena (% 54tik % 61era), bai eta erosketak egiterakoan beren orga edo poltsa eramaten dutenena ere (% 42tik % 54ra). Nahiz eta gutxi izaten jarraitu, pixka bat gehitu dira gutxi enpaketatutako produktuak erosten saiatzen direnak (% 19tik % 23ra).



Oro har, neskek mutilek baino neurri handiagoan jarraitzen dituzte ingurumen-iraunkortasuneko jokabide hauek. Alde nabarmenenak ondoko portaeretan hautematen dira: garraio publikoaren erabileran eta kotxea partekatzean, eta, batez ere, erosketetara norberaren orga edo poltsa eramatean (hala ere, azken alde horren atzean sexuen arteko etxeko lanen banaketa desorekatuaren eragina aurki dezakegu, emakumeek gizonek baino sarriago egiten baitituzte erosketak).



Bestalde, adinean gora egin ahala gehiago dira jasangarritasunari lotutako jokabideak betetzen dituztenak, garraio publikoa edo partekatutako kotxea erabiltzea izan ezik, azken honek kontrako joerak jarraitzen baitu, hau da, zenbat eta nagusiagoa izan orduan eta gutxiago erabiltzen da garraio publikoa eta partekatzen da kotxea.



2016ko datuak "Euskadiko gazteak 2016" ikerketaren aurrerapen datuak dira. Ikerketa hori Gazteen Euskal Behatokiak lau urtean behin burutzen duen *Euskadiko gazteak* bildumaren barruan dago. Bertan 30 urtetik beherako gazteen iritziak eta jarrerak aztertzen dira, horretarako egindako inkesta baten emaitzak oinarri hartuta. 2012ko datuak bilduma horretako [Euskadiko gazteak 2012](#) argitalpenetik datoz.


## Hiru gaztetik bik Euskadi independente izatea nahiko lukete

### ***Baina bakarrik gazteen herenak uste du hori posible izango dela etorkizunean***

Euskadiko 15 eta 29 urte bitarteko gazteen % 65,2k esan dute independentzia nahi dutela. Izan ere, % 39,1ek diote asko gustatuko litzaiekeela Euskadi independente izatea eta beste % 26,1ek adierazi dute nahiko edo dezente gustatuko litzaiekeela independentzia lortzea.

Euskadi independente izateko nahia handitu egin da urtebeteko epean, 2015eko azaroan gazteen % 59,5ek nahi zuten independentzia eta 2016ko azaroan % 65,2k.

Baina, bestalde, bakarrik gazteen herenak uste du (seguru aski edo agian) etorkizunean Euskadi independente izango dela (% 33,9k). Portzentaje hori ia ez da aldatu 2015etik; orduan gazteen % 33,4k uste baitzuten noizbait independentzia lortuko dela.



Bi galdera horiek konbinatuz gero, independentziarekiko sailkapena egin dezakegu:

- ✓ Gazteen % 31,2k nahi dute independentzia eta uste dute lortuko dela etorkizunean.
- ✓ % 32,6k nahi dute independentzia baina ez dute uste lortuko denik.
- ✓ Beste % 23,0k ez dute independentzia nahi eta ez dute uste gertatuko denik.
- ✓ Eta % 1,8k ez dute Euskadi independente izatea nahi baina uste dute etorkizunean izango dela.

Gainerako % 11,4k ez dute beren iritzia adierazi independentziari dagokionean.

2015eko datuekin konparatuz gero, ikus dezakegu alderik handiena ondoko taldean gertatu dela: Euskadi independente izatea nahi baina hori gertatuko denik uste ez dutenen artean; horiek gazte guztien % 26,2 izatetik % 32,6 izatera pasatu baitira.

Aztertutako datuak Gazteen Euskal Behatokiak eginiko bi inkestetatik datoz. Inkesta horiek 2015eko azaroan eta 2016ko azaroan gauzatu ziren eta bakoitzean Euskadiko 1512 gazte elkarrizketatu ziren. Gazte horiek 15 eta 29 urte bitartekoak ziren eta egungo gaiei buruz galdetu zitzaien.

## 15-29 urteko hiru emakumetatik bati beldurra ematen dio gauean herrian edo auzoan bakarrik ibiltzeak

### ***Emakume gazteen beldur-sentsazio hori areagotu egin da azken urteotan***

Komunikabideetan gehienetan genero-indarkeriari buruz berba egiten denean arazo horren alderdi berbera agertzen da baina badaude beste indarkeria mota batzuk ere, emakumeen espazio publikoaren erabilpenaren eskubidearen eta mugitzeko askatasunaren aurka doazenak. [Gazteen Euskal Behatokia](#)k oraingoan horiei heldu nahi die.


Genero-desberdintasunaren alderdi hau aztertzeko, Gazteen Euskal Behatokia lau urtero egiten duen ikerketan, *Euskadiko gazteak*, honako hau galdetzen die emakume eta gizon gazteei, ea beldur ematen dien gauez bere herri edo auzotik bakarrik ibiltzeak.

Emakume gazteen % 34,2ri beldurra ematen die bizi diren herrian edo auzoan gauez bakarrik ibiltzeak. 15-29 urteko gizonen artean, ehuneko hori % 3,9 da. Emakume bat gauez kalean lasai ezin ibiltzea emakumeen aurkako beste indarkeria mota bat da.

Emakume gazteek aurreko urteetan baino beldur handiagoa diote orain gauez bakarrik ibiltzeari, eta, aldi berean, areagotu egin da beldurraren pertzepzioan emakumeen eta gizonen artean dagoen aldea.

Aztertutako urte guztietan, ikusi da 15-19 urteko neskek adierazten dutela beldur handiena: 2016an, adin horretako nesken % 43,5ek esan zuten beldurra ematen ziela gauez kalean bakarrik ibiltzeak.

**Gauez beren herrian edo auzoan ibiltzeaz beldur diren 15-29 urteko emakume eta gizon gazteen ehunekoaren bilakaera (%)**




*Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (Euskadiko gazteak bilduma)*

## **Maiatzak 17a, Homofobia, Transfobia eta Bifobiaren aurkako Nazioarteko Eguna**


***Euskadiko gazte gehienak sexu bereko pertsonen arteko ezkontzaren aldekoak, bai eta sexu aldaketaren aldekoak ere, agertzen dira***

**Homofobia, Transfobia eta Bifobiaren aurkako Nazioarteko Eguna** maiatzaren 17an ospatzen da, 1990 urteko egun horretan Osasunaren Mundu Erakundeak gaixotasunen sailkapenen eskuliburutik kendu zuelako homosexualitatea.

Horren harira, [Gazteen Euskal Behatokiak](#) "funtsean homosexualitatea gaixotasun bat da eta horrela tratatu behar da" dioen esaldiari buruzko iritzia galdetu die Euskadiko 15 eta 29 urte bitarteko 1500 gazteri. Gazteen % 92 ez daude ados esaldi horrekin; bakarrik % 3 azaldu dira ados. Adostasuna jaitسي egin da azken lau urteotan, 2012an % 6koa baitzen.



Gainera, 15 eta 29 urte bitarteko gazte gehienak sexu bereko pertsonen arteko ezkontzaren aldekoak azaldu dira (% 91), bai eta sexu aldaketaren aldekoak ere (% 86). Aldekoen kopurua handitu da azken urteotan.



2016ko datuok "**Euskadiko gazteak 2016**" ikerketaren aurrerapen datuak dira. Ikerketa hori lau urtean behin burutzen du Gazteen Euskal Behatokiak *Euskadiko gazteak* bildumaren barruan. Bertan 30 urtetik beherako gazteen iritziak eta jarrerak aztertzen dira, horretarako egindako inkesta baten emaitzak oinarri hartuta.


## Gazteriaren erdia baino gutxiago sentitzen da europarra

### Europar sentimendua zabaldu da azken urteotan


**Europako eguna** dela-eta (**maiatzak 9a**), Euskadiko gazteen artean europar-sentimenduaren hedapenari buruzko datuak plazaratu nahi ditu [Gazteen Euskal Behatokiak](#).

Horretarako, Euskadiko 15 eta 29 urte bitarteko 1500 gazteri zenbateraino sentitzen diren europarrak galdetu diegu. Galdera hau Gazteen Euskal Behatokiaren hainbat inkestatan errepikatu da, azkenekoa 2016ko lehen hiruhilekoan eginikoan, *Euskadiko gazteak* bildumaren barruan. Bertan emandako erantzunak hartu ditugu oinarri.

2016ko emaitzak ikusita, esan dezakegu Euskadiko gazteen erdiak baino gutxiagoak (% 45) sentitzen direla oso edo nahikoa europarrak. Izan ere, gehixeago dira europarrak sentitzen ez direnak (% 49), horrelako sentimendua dutenak baino (% 45). Gainerako % 6k ez dute iritzirik azaldu.




Bere burua oso edo nahikoa europartzat jotzen duten 30 urtetik beherako gazteen ehunekoak gora egin du 2016an, 2012ko jaitsiera izan ondoren (orduan krisialdi ekonomikoaren ondorioz Europak ezarritako politika ekonomikoen kontra ageri zen biztanleria), eta orain 2000 urtean hasitako seriearen punturik altuenean kokatzen da gazteen europar-sentimendua.



Europar Batasunarekiko konfiantzari dagokionez, 2016an 18 eta 29 urte bitarteko gazteen

% 47k konfiantza zutela adierazi zuten, Euskadiko 18 urtetik gorako biztanleriaren batez bestekoaren gainetik (% 39).

Gainera, adin horretako gazteen % 43ren ustez Europar Batasuneko kide izatea "gauza ona da". Kasu honetan gazteen eta 18 urtetik gorako biztanleria orokorraren iritzia antzekoak dira (biztanleria orokorrean % 45ek uste dute hori).



Europar Batasunarekiko konfiantzari eta Europar Batasuneko kide izatearen balorazio positiboari buruzko datuak Lehendakariitzako Prospekzio Soziologikoen Kabineteak 2016an argitaratutako txostenetatik datoz, *Euskal Soziometroak* [60](#) eta [61](#), hain zuzen.

## **Euskadiko gazteen % 58k bere burua ez sinesletzat du erlijioari dagokionez**


**Azken 18 urteetan bere burua ez sinesletzat dutenen portzentajea % 31tik % 58ra pasatu da**

Aste Santua dela eta, [Gazteen Euskal Behatokiak](#) euskal gizartearen bilakaerari buruzko datuak aurkeztu nahi ditu, hain zuzen ere erlijioari dagokionez biztanleek beren buruari emandako definizioaren ingurukoak.

2016an Euskadiko gazteen % 58k bere burua ateotzat, ez sinesletzat, agnostikotzat edo interesik gabekotzat du. Portzentaje horrek 27 portzentaje-puntu egin du gora 1998an jasotako % 31tik.


Igoera honen arrazoa gazte katolikoek murrizpenean (praktikanteak edo ez praktikanteak) aurki dezakegu. Haiek 1998an Euskadiko gazteen %59 ziren. Gaur egun, oster, % 27 baino ez dira.

Erljio katolikoaz besteko erlijioetan sinesten duten gazteen kopuruak gora egin du atzeritarren kopuruarekin batera. Portzentaje honek gora egin du 1998ko % 1etik gaur eguneko % 8ra.



Euskadiko gazteen eta 18 urtetik gorako biztanleen datuak alderatuz gero, 2016koak beti ere, ikus dezakegu 15 eta 29 urte bitarteko gazteen artean askoz handiagoa dela beren burua ez sinesletzat hartzen dutenen kopurua 18 urtetik gorakoekin alderatuz (% 58 eta % 34 hurrenez hurren).

Beste alde batetik, beren burua katolikotzat (praktikante zein ez praktikante) hartzen dutenen kopuruari arreta eginez gero, kontrako proportzioa antzematen dugu. Horrela, 18 urtetik gorakoekin artean % 55ek bere burua katolikotzat jotzen du (% 37k ez praktikante eta beste % 18k praktikante), baina 15 eta 29 urte bitartekoekin artean % 27k baino ez du bere burua katolikotzat (% 23k ez praktikante eta beste % 4k praktikante).



Datu hauek Gazteen Euskal Behatokiak aztertu ditu, eta horretarako hainbat ikerketa hartu ditu aintzat: Euskadiko 15 eta 29 urte bitarteko gazteen datuetarako *Gazteen Argazkiak 3* (1998ko datuak), eta *Euskadiko gazteak 2008, 2012 eta 2016 (gaur egun egiten ari garena)* erabili ditu. Bestalde, Euskadiko 18 urte eta gehiagoko biztanleriarekin alderaketa egiteko Eusko Jaurlaritzaren Prospekzio Soziologikoen Kabinetearen 60. *Euskal Soziometroa Euskal iritzi publikoa 20 urtetan* ikerketa erabili dugu.

## **Euskadin jaitsi egin dira immigranteen sarrera debekatzearen aldeko gazteak**

***Gure erkidegoan atzerritar gehiegi daudela uste duten gazteen kopuruak ere behera egin du***


Martxoaren 21ean [Arraza oinarri duen Diskriminazioa Desagerrarazteko Nazioarteko Eguna](#) ospatzen dela eta, [Gazteen Euskal Behatokiak](#) *Euskadiko gazteak 2016* ikerketaren aurrerapen-datuak eskaintzen ditu. Ikerketa hori lau urtean behin elikatzen den [Euskadiko gazteak](#) izeneko bildumaren barruan dago. Bilduma honetan Euskadiko 15 eta 29 urte bitarteko gazteen portaerak, jarrerak eta iritzia aztertzen dira. Kasu honetan 1500 gazte elkarrizketatu dira eta hainbat gauzen artean immigrazioari buruzko iritzia eskatu zaie.

2004tik 2012ra igo egin zen gazteen artean (bai eta Euskadiko biztanleria orokorrean ere) Euskadin atzerritar gehiegi zegoenaren ustea. Baina 2016an gutxitu dira iritzi horretakoak, biztanlerian atzerritarrek duten pisua (2012ko % 7,3tik 2016ko % 6,5era) jaistearekin batera. 2016an Euskadin atzerritar gehiegi daudela uste duten gazteen portzentajea (% 29,4), 18 urtetik gorako biztanleriarena (% 36,0) baino txikiagoa da (azken datu hori Lehendakaritzako Prospekzio Soziologikoen Kabineteak kaleratu zuen [60. Euskal Soziometroan](#)).

Bestalde, 2016an 15 eta 29 urte bitarteko gazteen % 39,2k uste dute atzerriko etorkinei dagokienez neurririk egokiena sarrera ahalik eta gehien erraztea litzatekeela; gehiago dira, hala ere, lan-kontratua dutenei bakarrik erraztu beharko litzatekeela uste dutenak (% 45,8); beste % 5,2ren ustez etorkinen sarrera debekatzea litzateke egokiena; eta gainontzeko % 9,8k ez dakite edo ez dute beren iritzia eman.

Atzerriko etorkinen sarrera debekatu beharko litzatekeela uste dutenak gutxitu egin dira 2012tik (% 9,8) 2016era (% 5,2). Jaitsiera hori bat dator Euskadin atzerritar gehiegi daudela uste duten gazteen portzentajearen jaitsierarekin.

**Euskadin atzerritar gehiegi daudela eta atzerriko etorkinen sarrera debekatu beharko litzatekeela uste duten 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoen bilakaera (%)**



Zenbat eta gazteagoak izan orduan eta gutxiago dira bai atzerritar gehiegi daudela uste dutenak, bai eta etorkinen sarrera debekatu beharko litzatekeela pentsatzen dutenak ere (% 3,7 dira iritzi horretakoak 20 urtetik beherakoen artean).


## **Gazteen % 82k erreklamatu egiten dute kontsumitutako produktu edo zerbitzuren batekin arazorik izanez gero**

Martxoak 15 **Kontsumitzaileen Eskubideen Mundu-mailako Eguna** dela eta, [Gazteen Euskal Behatokia](#) horren inguruko datu batzuk plazaratzen ditu, Euskadiko 30 urtez azpiko gazteek kontsumitzen dituzten produktu edota zerbitzuekin arazorik izanez gero erreklamatzeko, hain zuzen ere.

Erositako produktu batekin edo kontratatutako zerbitzu batekin arazorik izanez gero, hamar gaztetik zortzik sarritan erreklamazioa egiten dutela diote (% 81,4). % 13,8k batzuetan bakarrik erreklamatzeko dute eta beste % 3,8k ez dute erreklamatzeko inoiz edo ia inoiz ez. Gainerako % 1ek ez du erantzun.

Arazorik izatekotan erreklamazioa egitea gazteen artean finkatua dagoen jokaera dela esan dezakegu, sarritan egiten dutenen kopurua antzekoa baita 2010ean (% 81,9) eta 2013an (% 81,4).

Mutilek neskek baino gehiagotan erreklamatzeko dute (sarritan % 82,8 eta % 79,9 hurrenez hurren). Eta beren burua klase sozial altuko edo ertain-altuko gisa definitzen dutenek maila baxukoak edo ertain-baxukoak direla diotenek baino gehiago erreklamatzeko dute (% 83,5ek eta % 77,1ek, hurrenez hurren).




Datu horiek "[Kontsumo arduratsuaren ohituren bilakaera EAEko gazteen artean 2010-2013](#)" ikerketatik datoz. Ikerkeketa hori Gazteen Euskal Behatokiak egin du.

## Euskadin 30 urtetik beherako hamar gaztetik zortzik nahi dute seme-alabak izatea noizbait

Azken 40 urteotan Euskadiko gizartearen egitura demografikoak aldaketa sakonak jasan ditu, jaiotza-tasaren beherakada eta bizi-itxaropenaren luzapena arrazoi. Gazteen Euskal Behatokiak oraingoan lehen arrazoiak ipini nahi du arreta. Horretarako, gaur egun 15 eta 29 urte bitarteko gazteek etorkizunean aita edo ama izateko dituzten asmoak aztertu ditu.

Euskadin seme-alabarik ez duten gazteen % 83,0k aitortu dute izatea gustuko luketela. Ehuneko hori antzekoa da mutilen artean (% 82,3) eta nesken artean (% 83,7), baina muturreko iritziak kontuan izanez gero ikus dezakegu neskak neurri handiagoan kokatzen direla bi muturretan: alde batetik, proportzio handiagoan aipatzen dute asko gustatuko litzaiekeela (% 51,9) eta bestetik, ez litzaiekeela batere gustatuko (% 7,0).



Zenbat eta nagusiagoak izan, orduan eta handixeagoa da seme-alabak izateko nahia. Gauzak horrela, 25 eta 29 urte bitartekoen artean % 85,0k adierazi dute egunen batean gurasoak bihurtzeko gogoia; 20 urtetik beherakoen artean, aldiz, % 80,1ek nahiko lukete seme-alabak izatea noizbait.

### Lehenengo seme-alaba izateko jotzen duten adin ideala 30 urte dira

Seme-alabak izatea nahiko luketela dioten gazteei, zein adin dela horretarako egokiena galdetu diegu. Nesken ustez 29 urte dituztenean eta mutilen ustez 30 urte dituztenean. 20 urtetik beharako gazteek, batez beste, 29 urte dituztenean


litzatekeela egokiena diote eta adin horretara hurbildu ahala atzeratu egiten da lehenengo seme-alaba izateko adin ideala (25 eta 29 urte bitartekoen iritziz, batez beste, 31 urte dituztenean).

Gazteek idealtzat jotzen duten adin hori Euskadin benetan lehenengo seme-alaba izaten den adinaren azpitik dago. INEk (Instituto Nacional de Estadística) ematen dituen datuen arabera, Euskadin emakumeek, batez beste, 32 urterekin izaten dute lehenengo seme-alaba, hau da, emakumeek nahiko luketen baino hiru urte beranduago (datu hori Gazteen Euskal Behatokiak egin duen [Euskadiko gazteen panoramika. Gazteen adierazleak 2015](#) izeneko txostenean kontsulta daiteke).

### **Seme-alabak izan nahi dituzten gazteen laurden batek uste du ezin izango duela bere ustez egokiena den adinean izan**

Seme-alabak izan nahi dituztenen % 59,1ek uste dute oso edo nahikoa gertagarria dela nahi duten adinean izatea, % 26,0k, aldiz, uste dute ez dela posible izango adin ideal horretan izatea. Gainontzekoek ez dute erantzun.

Neskak mutilak baino baikorragoak dira nahi duten adinean seme-alabak izateari buruz, nesken % 61,3k uste baitute ama izango direla nahi duten adinean eta mutilen kasuan gutxiago dira nahi duten adinean aita izango direla uste dutenak (% 57,0). Adinean gora egin ahala jaitsi egiten da idealtzat jotzen duten adinean guraso izango direla uste duten gazteen ehunekoa eta, aitzitik, ez dela hori gertatuko deritzotena handitzen da. Dena dela, adin tarte guztietan gehiago dira nahi duten adinean guraso izango direla uste dutenak beren aitatasuna edo amatasuna atzeratu beharko dutela uste dutenak baino.




Datu hauek Gazteen Euskal Behatokiak 2016ko azaroan egin zuen inkesta batetik datoz. Inkesta horretan Euskadin bizi diren 15 eta 29 urte bitarteko 1512 gazte elkarrizketatu ziren.

## 2015etik 2016ra ez da alderik izan gazteek gai honi buruz dituzten iritzietan

Datu hauek aurreko urtean jasotakoekin konparatuz gero, ikusi ahal dugu gazteen gogoak eta aurreikuspenak antzekoak direla. 2015 urtearen bukaeran seme-alabarik ez zuten gazteen % 84,7k seme-alabak izatea gustuko luketela adierazi zuten; gazte horiek horretarako jotzen zuten adin ideala 30 urte ziren, batez beste, mutilen artean eta 29 urte nesken artean; eta seme-alabak izan nahiko zituztela azaldu zutenen laurden batek (% 25,5) ezin izango zuela adin horretan izatea pentsatzen zuen.


### Seme-alabak izateko gogoaren bilakaera seme-alabarik ez duten Euskadiko gazteen artean



### Seme-alabak izateko adin ideala izan nahi dituzten gazteen artean



### Idealtzat jotzen duten adinean izateko probabilitatearen bilakaera seme-alabak izan nahi dituzten gazteen artean



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (2015 eta 2016)



Etxebizitza / Vivienda

**Gazteen Euskal Behatokiak ikerketa berria kaleratu du: "Etxebizitza-emantzipazioaren kostua Euskadin 2016"**

**35 urtetik beherako soldatapeko gazte batek bere soldataren bi heren bideratu beharko lituzke alokairu-errenta ordaintzeko**

*Laugarrenez egin da azterlan hau, eta bertan azaltzen dira zer zailtasun dituzten soldatapeko gazteek etxebizitza bat eskuratzeko.*

*Zailtasun horien berri emateko, etxebizitza eskuratzeko dakarren kostua erabiltzen da adierazle nagusi gisa. Kontzeptu horrek zera adierazten du: gazte soldatadun batek bere soldataren zer ehuneko erabili beharko lukeen etxebizitza ordaintzeko bera bakarrik emantzipatuz gero.*

Txostenean etxebizitza librea eta babestua eskuratzeko kostuaren 12 adierazle jasotzen dira; sexuen eta adin-tarteen artean dauden aldeak aztertzen dira, eta lurralde historikoen arteko zein Euskadiren eta Espainiaren arteko konparaketak egiten dira. 2007tik 2016ra bitartekoa da ikerketak aztertzen duen aldia, eta etxebizitza eskuratzearen kostuak urtez urte izan duen bilakaera ikusteko datuak ematen dira.

Ikerketan ondorioztatzen denez, Euskadin etxebizitza librea ez dago gazteen eskura, eta **alokairuko etxebizitza babestua da aukera bideragarri bakarra** bakarrik emantzipatu nahi duen gazte batentzat, hileko soldata garbiaren % 30aren muga gainditu gabe, hori jotzen baita etxebizitza ordaintzeko gehieneko zorpetze-muga.

**Etxebizitza librea jabetzan hartzearen kostuak behera egin du pixka bat baina, hala ere, soldatapeko gazteen batez besteko soldataren erdia bideratzea dakar**

Euskadin lan egiten duten 18 urtetik 34 urtera bitarteko gazteen batez besteko soldatarekin, eta kontuan izanik 2016an eskrituratutako etxebizitza libreen prezioa, interes-tipoak eta hipoteka-maileguen batez besteko iraupena, gazte batek hipotekaren lehenengo hileko kuota berak bakarrik ordaintzeko bere **soldata garbiaren % 54,9 bideratu beharko luke, alegia, soldataren erdia baino gehiago.**

Etxebizitza librea jabetzan eskuratzeko 2016an duen kostua **baxuena da 2007. urtetik hona**, batik bat Euskadin etxebizitzaren salerosketaren prezioak eta hipoteka-kredituen interesek izan duten jaitsieragatik, eta ez gazteen batez besteko soldata hobetu egin delako.


Euskadin etxebizitza erostearen kostua handiagoa da Espainian baino (% 45,7), baina bietan gainditzen da gomendatzen den gehieneko zorpetze-muga, alegia, % 30, bai eta batez besteko soldataren % 40 ere, eta horrek gehiegizko ahalegina egin beharrean jartzen du etxebizitza ordaintzeko soldataren zati hori erabiltzen duena.

Alde handiak daude adinaren, sexuaren eta lurralde historikoaren arabera. 18 eta 24 urte bitarteko gazteek soldataren % 85,0 bideratu behar lukete etxebizitza erostera; 25 eta 29 urte bitartekoek, berriz, % 58,3; eta 30 eta 34 urte bitartekoek, % 49,4.

Halaber, gizonen eta emakumeen soldata desberdina dutenez, etxebizitza librea jabetzan hartzearen kostua ere desberdina da batzuentzat eta besteentzat, eta ia % 10eko aldea dago batzuen eta besteen artean. Horrela, 18 eta 34 urte bitarteko gizonentzat, soldataren % 49,5koa da kostua, eta adin bereko emakumeentzat, berriz, soldataren % 59,9koa.

Gipuzkoak du etxebizitza jabetzan eskuratzeko kosturik altuena (% 60,4), Bizkaiak ondoren (% 53,4), eta Arabak azkenik (% 41,9).

Kalkulatzen badugu soldatapeko gazte batek zer prezio ordain dezakeen gehienez ere bere soldataren % 30 baliatuta, 109.992 € ateratzen da; merkatuko batez besteko prezioa baino 91.332 € gutxiago. Bestela esanda, gazteen batez besteko soldata % 83,0 igo beharko litzateke merkatu libreko etxebizitza baten hipoteka soldataren % 30 erabilita ordaintzeko.



Kontuan hartuta 2016an eskrituratutako etxebizitzaren batez besteko prezioa eta gazteen batez besteko soldatak, beste adierazle bat lortzen dugu: etxebizitzaren gehieneko azalera onargarria. Hori 49,0 m<sup>2</sup>-koa da Euskadin. Alegia, soldatapeko gazte batek neurri horretako etxebizitza bakarrik erosi ahal izango luke. 2016an eskrituratutako etxebizitzaren batez besteko azalera, ordea, 91,7 m<sup>2</sup>-koa izan zen, beraz, eros dezaketenaren eta merkatuaren errealitatearen arteko aldea 42,7 m<sup>2</sup>-koa da.

***Etxebizitza librea alokatzearen kostuak gora egin du eta erosteak dakarren kostuaren gainetik dago, portzentajezko 10 puntu, hain zuzen ere.***


Hirugarren urtez jarraian, etxebizitza alokatzea garestiagoa da merkatu librean etxebizitza bat erostea baino. Kontuan izanik alokairu-errenten batez besteko prezioa eta 18 urtetik 34 urte bitarteko gazteen batez besteko soldatak, gazte batek hileko soldataren % 66,9 erabili beharko luke alokairua ordaintzeko, bakarrik emantzipatuz gero. Azken urtean gora egin du etxebizitza alokairuan eskuratzeko kostuak, merkatu librean igo egin direlako alokairu-errentak.

Alokairu librea eskuratzeko **zailtasun handiena** duen taldea **18 eta 24 urte bitarteko gazteena da, soldataren % 103,5** beharko bailukete alokairua ordaintzeko. Emakumeak daude ondoren, soldataren % 73,0 beharko bailukete; gizon gazte batek, aldiz, soldataren % 60,2 beharko luke alokairu librea berak bakarrik ordaintzeko.

Alokatzea aukeratuz gero, Bizkaia da lurralde historikorik garestiena, etxebizitza alokatzearen kostua batez besteko soldataren % 67,1 baita; Gipuzkoa da bigarren (% 64,6), eta Araba hirugarren (% 58,7).

Kontuan izanik gomendatzen den gehieneko zorpetze-maila soldataren % 30 dela, soldatapeko gazte batek hilean jasotzen duenaren bikoitza baino gehiago kobratu beharko luke berak bakarrik etxebizitza baten alokairu-errenta ordaindu ahal izateko; zehazki, % 122,8 igo beharko luke soldatak.

Gehieneko alokairu-errenta onargarria, kontuan harturik soldataren % 30 gomendatzen dela gehieneko zorpetze-mugatzat, 395 euro da, eta, hortaz, alokairu-errenta onargarri horren eta merkatuko prezioaren arteko aldea 485 € da.



Espanian, alokairuaren prezioak baxuagoak dira, baina etxebizitza alokatzearen kostua oso handia da hor ere: % 56,8.


### ***Etxebizitza babestua***

Gazteek aurre egin diezaiekete etxebizitza babestuak eskuratzeko kostuei, eta, batik bat, alokairu babestuen kostuei. Dena den etxebizitza babestuak ez du pisu handirik etxebizitza-parkean eta horregatik gazte gutxik eskura dezakete etxebizitza babestu bat.

**Jabetzako etxebizitza babestuaren** lehen hipoteka-kuota ordaintzeko, 18 urtetik 34 urtera bitarteko gazte baten soldata garbiaren % 32,4 behar da Euskadin; alegia, onargarritzat jotzen den gehieneko zorpetze-mugatik hurbil gaude.

**Alokairu babestua** aukera eskuragarria da Euskadiko gazteentzat, 18 urtetik 34 urtera bitarteko gazteen hileko batez besteko soldataren % 20,4 behar baita alokairu hori ordaintzeko.

Dena den, 25 urtetik beherako gazte soldatadunak etxebizitza babestuen merkatutik kanpo ere geratzen dira, bere soldata baxuak direla medio. Adin talde honi dagokionez, etxebizitza babestua eskuratzeko kostua bakarrik gerturatzen da % 30aren atalaserako alokairu babestuaren kasuan (% 31,5).



[Gazteen Euskal Behatokiak](#) berak koordinatu du ikerlan hau, eta Joffre López Oller emantzipazio-adierazleen alorrean adituak prestatu du. Adierazleak metodologia-lan bati jarraikiz kalkulatu dira, hainbat datu-base eta datu konbinatuz: Estatistikako Institutu Nazionalarenak, Notariotzaren Kontseilu Nagusiarena, Jabetzaren, Ondasun Higigarrien eta Merkataritza Ondasunen Erregistratzaileen Elkargoarena, Espainiako Bankuarenak, Etxebizitzaren Euskal Behatokiarenak, etab.


Txosten osoa [Gazteen Euskal Behatokiaren webgunean](#) eskuratu daiteke.

### 30 urtetik beherako gazte emantzipatu gehienek alokairua aukeratzen dute


**30 urtetik 34 urterako taldean, emantzipatutako gehienek ez dute beren etxebizitza alokatu, baina aukera honek pisu handiagoa du aurreko urteekin konparatuta**

30 urtetik beherako gazte emantzipatu gehienak alokatutako etxe batean bizi dira (% 73,6). 30-34 urteko pertsonen taldean ordea, ia pertsona emantzipatuen erdiak (% 48,0) beren etxebizitza erosi dute. Ehuneko hori alokairuan bizi direnen ehunekoa (% 43,5) baino handiagoa da.

Adin horretan eta 30 urtetik beherako taldean etxebizitza erosi duten pertsona emantzipatuen ehunekoen arteko aldea 30 puntukoa da.




Nolanahi ere, 30-34 urteko pertsonen taldean, beren egoitzako etxebizitza erosi dutenen ehunekoak behera egin du azken urteotan, 30 urtetik beherakoaren artean dagoen joera berdina izanik: 2011n, 30-34 urteko pertsona emantzipatuen % 58,6 ziren, eta 2015ean, berriz, % 48,0. Aldiz, gora egin du alokairuan bizi direnen ehunekoak, bai eta oinordetza edo dohaintza bidez jasotako zein aldi baterako lagatako etxebizitza batean bizi direnen ehunekoak ere.



Beren burua kreditu batean hipotekatu nahi ez izatea da aipatzen den arrazoi garrantzitsuena alokairua aukeratu duten 16-29 urteko gazte emantzipatuen taldean (% 42,5ek eman dute arrazoi hori). Alokairuan bizi diren 30 eta 34 urte bitartekoen artean ere hori da gehien errepikatu den azalpena (% 46,4k emanda).

Aurreko urteetako datuak aztertuz gero, ikusten da 2011tik 2015era asko handitu dela beren burua kreditu batean hipotekatu nahi ez izateagatik alokairua aukeratu duten gazteen ehunekoa, aztertutako bi adin-taldeetan.



Datu hauek [Gazteen Euskal Behatokiak](#) argitaratu berri duen "[Gazteen emantzipazioa Euskadin 2015](#)" liburutik hartu dira.

Azterketaren oinarria 16-29 urteko gazteek gai horren inguruko inkesta espezifiko bati emandako erantzunak dira. Galdera berdinak egin zaizkie 30-34 urteko taldekoei, aztertzeko nola aldatzen den, edo ez, pertsona gazteen bizitegi-egoera adinean aurrera egin ahala. Guztira, Euskadin bizi diren 16-34 urteko ia 2.000 pertsona gaztek hartu dute parte.

## **Etxebizitza hartzearen kostuak behera egin du Euskadin eta Gipuzkoa lurralderik garestiena dirau gazteentzako**


[Gazteen Euskal Behatokiak](#) argitaratu berri du '[Etxebizitza-emantzipazioaren kostua Euskadin 2015](#)' izeneko txostena. Txosten honetan bere kabuz emantzipatu nahi duen 18 eta 34 urte bitarteko gazte soldatadun bati etxebizitza, jabetzan zein alokairuan, eskuratzeak dakarkion kostu teorikoa kalkulatzeko da.

**Eskuratze-kostu hori kalkulatzeko kontuan** hartzen dira adin tarte horretako gazteen batez besteko **soldatak**, batetik, eta bestetik, Euskadiko lurralde bakoitzeko etxebizitzaren batez besteko **salneurriak**, kontratatutako hipoteka-maileguen batez besteko **interes-tasak** bai eta mailegu horien batez besteko iraunaldia ere, erostea aukeratuz gero, edo batez besteko **alokairu-errentak**, alokatzea erabakitzen bada. Dena dela, **estimazio teorikoa** da, batez besteko balioak hartzen direlako kontuan eta ez kasu bakoitzeko berezitasunak (soldata, etxebizitzaren prezioa, hipoteka-maileguaren baldintzak horrelakorik egonez gero, eta abar).

Kalkuluen arabera, **Gipuzkoako** 35 urtetik beherako **gazte** soldatadun **batek bere hileko soldata garbiaren % 58 bideratu beharko** luke merkatu librean etxebizitza erosteko hipotekaren lehen hilerokoa ordaintzera.

Aurreko urtearekin alderatuz Gipuzkoako kostuak ehuneko 8 puntuko beherakada izan duen arren (orduan % 65,7 baitzen), horrela ere Bizkaiko gazteek jasan behar duten kostutik oso gora dago (hileko soldataren %52,2); baita Arabako gazteek etxebizitza librea eskuratzearen kostutik ere (ia hamahiru puntu gehiago, hileko soldataren %45,4).

Etxebizitza jabetzan hartzearen kostuarekin ez bezala, etxebizitza alokatzearen kostuak gora egin du, alokairuen errentak igo egin direlako. **Gipuzkoako** gazteek kostu handiagoei egin behar diete aurre (beren **soldata garbiaren % 67,5**), **Bizkaikoek** baino (**% 64,0**) eta azken horiek **Arabako gazteek** baino esfortzu handiagoa (**% 54,1**), beti ere merkatu libreko etxebizitza bat bakarka alokatzeko egoera hipotetikoan.



Zergatik daude lurraldeen arteko alde horiek? **Gipuzkoan etxebizitzaren salneurriak**, baita alokairu-errentak ere, beste lurraldeetan baino **garestiagoak** direlako, batez ere Araban baino garestiagoak, Araban preziorik baxuenak aurki baitaitezke, eta **soldatak**, aldiz, **antzekoak** dira hiru lurraldeetan.

Bukatzeko, aipa dezakegu hiru lurraldeetan gazte batentzat gutxixeago kostatzen du hipoteka ordaintzeak etxebizitza alokatzeak baino.

Esteka hauetan [txosten osoa](#) eta [laburpena](#) kontsulta daitezke.



Ikuspegi orokorra / Visión global


## Abenduaren 18a: Migratzaileen Nazioarteko Eguna

### ***Euskadin bizi diren 100 gaztetik 13k atzerriko nazionalitatea dute***


**Migratzaileen Nazioarteko Eguna** dela-eta, Gazteen Euskal Behatokiak atzerriko nazionalitatea izanik, Euskadin erroldatuta dagoen atzerriko biztanleria gazteari buruzko datuak aurkezten ditu. Datuok EUSTAT -Euskal Estatistika Erakundea- dute iturri.

Biztanleen udal-errolaren estatistikaren datuen arabera, 2017an atzerriko nazionalitatea duten 15 eta 29 urte bitarteko 36 919 lagun daude Euskadin erroldatuta. Horietariko 18 854 emakumeak dira eta 18 065, ostera, gizonak.

2013 eta 2016 artean, Euskadin erroldatutako atzerriko gazteen kopuruak beherantz egin zuen baina 2017an ia 1000 gazte atzerritar gehiago daude aurreko urtearekin konparatuta.




Gazte atzerritarrek Euskadiko gazteen artean duten pisua ere zertxobait handitu da 2015 eta 2016 urteekin konparatuta eta, horrela, 2017an Euskadin bizi diren gazte guztien % 13,0 dira atzerritarrek.




Gazte atzerritarrek biztanleria gazte osoan duten pisua ez da berdina lurralde historiko guztietan: Bizkaian (% 12,5) eta Gipuzkoa (% 12,8) baino handixeagoa da Araban (% 15,1).

Euskadin bizi diren 15 eta 29 urte bitarteko gazte atzerritarren artean proportziorik handiena, % 44,2, Ameriketatik etorri da, 16 309 gazte hain zuzen ere. Bestalde, gazteen % 25,3k (9336 lagun) Afrika dute jatorria, % 22,1 (8146 lagun) Europako beste herrialdeetatik etorri dira eta gainontzeko % 8,5 (3128 gazte) Asiatik edo Ozeaniatik.



Errepikatzen badugu analisi hau lurralde historiko bakoitzean, hau da, aztertzen badugu atzerriko nazionalitatea duten gazteek jatorriaren arabera duten pisua lurralde bakoitzaren barruan, ikusten dugu Ameriketatik etorritako gazteek pisu handiagoa dutela Bizkaia, gainontzeko lurraldeetan baino. Araban nabarmena da Afrikako gazteen pisua, Ameriketatik etorritakoen antzekoa baita. Eta Gipuzkoan aipatzekoa da Europako beste herrialdeetatik etorritako gazteen pisu erlatiboa, Araban eta Bizkaian dutenarekin konparatuta.



Aztertutako datuak, bai eta gehiago ere, Gazteen Euskal Behatokiaren webgunearen *Estatistikak* arloan aurki daitezke, **Biztaleria** atalean hain zuzen ere.

## Zertarako balio dute eta zertarako erabili ahal dituzu Gazteen Euskal Behatokiaren estatistikak?

Gazteen Euskal Behatokiak bere webgunean estatistiken kontsulta dinamikoa egiteko sistema du.

### Δ ZER DA ESTATISTIKEN KONTSULTA DINAMIKOA EGITEKO SISTEMA?

Norberaren intereseko datuen taulak egin ahal izateko aplikazioa da: 100 adierazle baino gehiagoren artean zure interesekoa aukeratzen duzu, eta horretan erabakitzen duzu zein urtetako datua nahi duzun, adinaren edota sexuaren arabera aldeak ikusi nahi dituzun, bai eta Euskadi osoko informazioa edota **Araba, Bizkaia edo Gipuzkoakoa** nahiago duzun ere.

**Datuak behera karga** daitezke eta zure txostenetan edo proiektuetan **sartu**.

### Δ ZELAKO INFORMAZIOA ESKAINTZEN DU SISTEMA HONEK?

**111 adierazleren bilakaera-datuak** eskaintzen ditu, zortzi gai-arlotan sailkatuta.

1. BIZTANLERIA
2. HEZKUNTZA
3. LANA
4. EMANTZIPAZIOA ETA ETXEBIZITZA
5. OSASUNA
6. EUSKARA
7. AISIA, KULTURA ETA KIROLA
8. BALIOAK ETA JARRERAK

Jakin dezakezu nolako bilakaera duen **gazteen kopuruak**, zenbat **gazte atzerritar** dauden, zein den **ama** izateko batez besteko adina, zelako **hezkuntza**-maila duten gazteek, zenbatek dakiten **ingelesez** eta **euskaraz** ondo hitz egiten, zein den **langabezia-tasa** eta **okupazio-tasa**, zenbat **lan-istripu** gertatzen diren gazteen artean, zenbatek duten lanaldi partziala edota aldizkako lan-kontratua, zein den, batez beste, **emantzipatzeko adina**, zenbat gazte emantzipatzen diren **alokatutako etxebizitzan**, zenbat kostatzen zaion gazte bati **etxebizitza eskuratzea**, zein den gazteen **jarduera fisikoaren** maila, zenbatekoa den nesken **nerabezaro-haurdunaldien tasa**, zenbat **GIB** infekzio gertatu diren, zein den **sare sozialen erabilera**, zenbat joaten diren ekitaldi kulturaletara, zenbat dauden lonjetan edo **gazte-lokaletan**, zenbatekoa den **etorkizunarekiko konfiantza indizea**, zenbatek egiten dituzten **boluntario-lanak**, zenbatekoa den **politikarekiko** interesa, nola kokatzen diren **erlijio-gaieetan**, **sexu**

bereko pertsonen arteko ezkontzari buruz zer deritzoten, zenbatekoa den **emakumeen aurkako indarkeria** tasa, zenbatek **kontsumitzen** duten modu jasagarri edo iraunkorrean, zenbatek erabiltzen duten **bizikleta** beren ohiko joan-etorrietan... eta horrela 111 adierazleetako informazioa jaso arte!!!

#### Δ ZERTARAKO BALIO DU?

- Zure plan edo proiektuetarako egoeraren **diagnosiak** egiteko.
- Ebaluatzeko **adierazleak diseinatzeko**.
- **Helmugak ezartzeko** eta zure esku-hartzeak izandako **inpaktuaren jarraipena** egiteko.
- Kazetaritza-artikuluak **testuinguruan kokatzeko**.
- Gazteriaren arloan gai zehatzei buruzko **ikerketak egiteko**.

#### Δ NONDIK DATOR INFORMAZIOA?

Datuak iturri hauetatik datoz:

- ✓ Gazteen Euskal Behatokiak berak egindako ikerketak.
- ✓ Estatistika-institutuek (Eustat –Euskal Estatistika Erakundea- eta INE - Instituto Nacional de Estadística-) emandako informazioa edo beren webguneetatik ateratakoa.
- ✓ **Eusko Jaurlaritzaren** sail bakoitzak jasotako datuak.

#### Δ ETA ARAZORIK BADUT APLIKAZIOAREKIN (badakigu zelakoa den informatika) EDOA BILATZEN DUDAN INFORMAZIOA EZ BADUT AURKITZEN?

Jo ahal duzu gugana, Gazteen Euskal Behatokira, telefonoz edota korreo elektronikoz. Ahalik eta azkarren izango duzu gure erantzuna!

## Hobetu egin da beren egoera pertsonalari buruz gazteek egindako balorazioa


### Gainera gazte gehienak optimistak dira etorkizunari begira

2016an Euskadiko gazteek 7,6ko puntuazioa ematen diote, batez beste, beren egoera pertsonalari 0tik 10era bitarteko eskala batean. Puntuazio hori berdina da emakume nahiz gizon gazteen artean.

Egoera pertsonalaren balorazioak hobera egin du aurreko urteekin alderatuz gero, eta 2015ean erregistratutako balio bera jaso da 2016an ere. Hain zuzen, horixe da altuena 2000. urtean martxan jarritako serie osoan.

Egoera pertsonalaren balorazioa altuagoa da 15 eta 29 urte bitarteko gazteen artean, 18 urte edo gehiago duten biztanleen guztizkoaren aldean.

**Egoera pertsonalari buruzko balorazioaren bilakaera. Gazteriaren eta 18 urtetik gorako biztanle guztien arteko alderaketa (0-10 eskala)**



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (*Euskadiko gazteak* seriea, *Gazteen argazkiak* seriea eta *Aurrera Begira* seriea) eta Lehendakarietzako Prospekzio Soziologikoen Kabinetea (60. *Euskal Soziometroa*)


Gazteak hobekuntzaren jakitun dira; hala, 2016an ([Aurrera Begira](#) bildumaren azken datuen arabera), 15 urtetik 29 urtera bitarteko gazteen erdiak baino gehiagok uste du bere egoera pertsonalak hobera egin duela azken bost urteetan (% 56,5). Beste % 31,6k uste du berdin jarraitzen duela, eta % 10,8k, aldiz, okerrera egin duela.

Emakume gazteen artean handiagoa da beren egoera pertsonalak hobera egin duela uste dutenen ehunekoa, gizon gazteekin alderatuz gero (% 59,4, % 53,6ren aldean).

Gainera, Euskadiko gazteria gehienbat baikorra da etorkizunari dagokionez: 2016an 15 eta 29 urte bitarteko gazteen % 69,2k uste du beren egoera pertsonalak hobera egingo duela bost urteko epean.

Emakume gazteak zertxobait baikorragoak agertu dira, gizonen aldean, beren egoera pertsonala hobetuko ote den galdetu diegunean (emakume gazteen % 41,3 eta gizon gazteen % 67,1).

**Bost urteko epean egoera pertsonalak izango duen bilakaerari buruzko ustea 15 eta 29 urte bitarteko gazteen artean, sexuaren arabera (%)**



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (Aurrera Begira 2016)

## Abuztuaren 12a, Gazteriaren Nazioarteko Eguna

**Gazteen Euskal Behatokiak** bere konpromisoan dihardu: Euskadiko gazteen egoera eta beharren inguruan ikertu, hezi eta informatu.

Gazteen egun honen ospakizuna dela-eta, [Behatokiak](#) urtearen lehen sei hilabeteetan egindako lanaren balantzea egin nahi du eta, bide batez, udazkenean eta urtearen amaieran aurrera aterako dituenak gogorarazi.

### Ikerketak

- **Gazteak eta enplegua Euskadin 2015.** Azterlan hau ia-ia 2.000 gaztek erantzun duten etxez etxeko inkesta batean oinarritzen da. Inkestak honako hauek aztertzen ditu: gazteen lan arloko esperientzia, lana eskuratzeko aukera, enpleguaren ezaugarriak kontratuaren eta lanaldiaren motari dagokienez, soldata, norbere konturako lanaren eta besteren konturako lanaren ehunekoa, sektorea, publikoa edo pribatua, eta horrez gain, langabezian daudenen egoera eta enplegua aurkitzeko dituzten aurreikuspenak.
- **Aurrera Begira 2016. Gazteen aurreikuspenei buruzko adierazleak.** *Aurrera Begira* Gazteen Euskal Behatokiak urtero burutzen duen ikerketa da, honako helburu hau izanik: Euskadiko gazteek nola antzematen duten oraina eta, epe laburrean, zeintzuk diren beraien etorkizunerako aurreikuspenak jakitea. Emaitzak 10 adierazletan laburbiltzen dira: lehen hiru adierazleek gaur egungo egoeraren balorazioa aztertzen dute ikuspuntu ezberdinetatik: norberarena eta taldearena; jarraian lan aurreikuspenei buruzko lau adierazle aztertzen dira; hurrengo adierazlea emantzipazioaren ingurukoa da eta azkenik, etorkizunarekiko aurreikuspenei buruzko bi adierazle azaltzen dira.
- **III. Gazte-planaren eraginaren ebaluazioa.** Eusko Jaurlaritzaren III. Gazte-planaren iraunaldia (2014-2016) amaitu ondoren, Gazteen Euskal Behatokiak *Gazte-Planaren eraginaren ebaluazioa* egin du. Bertan planaren hasieran ezarritako xedeak edo helburuak lortu diren aztertzen da. Horretarako 29 oinarritzko adierazleen jarraipena egin da eta gazteek beraiek emandako iritziak eta balorazioak ere kontuan hartu dira.
- **Euskadiko gazteen egoeraren diagnostikoa 2017.** IV. Gazte-Plan berria burutzen laguntzeko, Gazteen Euskal Behatokiak *Euskadiko gazteen egoeraren diagnostikoa 2017* egin du. Bertan gaur egun gure gazteek bizi diren errealitatea adierazten da.
- **Europa Helmuga Gida 2017.** Gida honek laguntza emango dizu bidaia prestatzeko, hizkuntzak ikasteko, lana bilatzeko beste herrialdeetan, beka bat eskatzeko, gazteen arteko trukeak egiteko, titulazio bat baliozkotzeko edo europar curriculum prestatzeko. Seigarren edizio honetan, aurrekoetan bezala, Gazteen Euskal Behatokiak Antonio Jesús Rodríguez Martínez, nazioarteko mugikortasunean adituaren laguntza izan du; honek 424 erreferentzia berri sartu ditu edizio honetan. Horiek kontatuta, web orriei loturiko 2674 esteka osatu eta ordenatu ditugu gida honetan, aukera guztiak zure esku jartzeko asmoz.

Urteko azken hilabeteetan lantzen ari garen **ikerketa berriak** aurkeztuko ditugu: *Gazteen emantzipazioa Euskadin 2015, Euskadiko gazteak 2016, Etxebizitza-emantzipazioaren kostua Euskadin 2016...*

## Dokumentazio Zentroa

Gazteen Euskal Behatokiko [Dokumentazio Zentroaren](#) helburua gazteriaren alorrarekin zerikusia daukan dokumentazioa jaso eta hedatzea da, gazteria interesguneetat daukaten ikertzaileei, hezitzaileei eta programen eta politiken kudeatzaileei laguntza emateko asmoarekin. Horretarako Zentroak hilerok eskaintzen ditu bere [Buletinak](#), erositako azken liburu eta aldizkarien berri emanez eta [artikulu interesgarrien laburpenak](#) landuz.

Gainera, [Irakurketa gidak](#) izeneko atalean sei gida berri gehitu ditu:

- ✗ **Nola konektatu gazteekin gune digitalean** (pdf, 703 kb)
- ✗ **Adimen emozionalaren inguruko bibliografia** (pdf, 221 kb)
- ✗ **Gazteak eta enpleguari buruzko bibliografia** (pdf, 262 kb)
- ✗ **Indarkeria matxistari buruzko bibliografia, Beldur Barik ikastaroaren harira** (pdf, 461 kb)
- ✗ **Zibersexoa, sexting-a eta intimitatea pornografia bihurtzea** (pdf, 180 kb)
- ✗ **Substantziarik gabeko adikzioei buruzko bibliografia** (pdf, 354 kb)

## Prestakuntza plana

Behatokiaren hirugarren lan-esparrua profesionalen [formakuntza](#) da. Antolatzen ditugun ikastaroen bidez gazteekin lan egiten dutenei, udaletxeetan, hezkuntza sisteman edo entitate eta elkarteetan, esparru ezberdinetan dituzten ezagutzak egunarazteko aukera ematen diegu.

Urtarriletik ekainera gai ezberdinetako **ikastaroak** antolatu ditugu eta **167 lagun** bertaratu dira. Ikastaroen balorazioak oso onak izan dira eta kasu batzuetan edizio berriak egin behar izan dira eskaera altua zela-eta. Hauek izan dira egindako ikastaroak:

- **Substantziarik gabeko adikzioak** (2 edizio)
- **Erotika 2.0: zibersexoa, sexting-a eta intimitatea pornografia bihurtzea nerabezaroan**
- **Indarkeria matxistaren prebentzioa. Beldur Barik programa** (3 edizio)
- **Gune digitalean, nola konektatu gazteekin?**
- **Adimen emozionala jardunean: gazteekin harreman hobea izateko tresnak**

Urteko **azken hiruhilekoan bi ikastaro berri** antolatuko ditugu:

- **Drogei buruz hitz egiten dugunean, zertaz ari gara? Gazteekin erabilgarriak izan daitezken lan-tresnak.** Bilbon, 2017ko urriaren 3an, 10ean eta 17an.
- **Arkeologia identitarioak: transexualitatea eta bestelako aniztasun sexualak.** Bilbon, 2017ko azaroaren 14an, 21ean eta 28an.

## **Gaztedoc**

Gazteen Euskal Behatokiaren lanari buruz informazio gehiago nahi baduzu, jo gure [webgunera](#), jarrai gaitzazu gizarte-sareetan: [Facebook](#)en eta [Twitter](#)ren, edo eman izena bi hilabeteen behin plazaratzen dugun [Gaztedoc buletinean](#).

## **Lanean dabiltzan gazteen artean behera egin du lana galtzeko edo lan-baldintzak okertzeko arriskuak**

**Gazteen Euskal Behatokiak *Aurrera Begira*, *Gazteen Aurreikuspenei buruzko adierazleak* ikerketaren laugarren edizioa aurkeztu du**

[Aurrera Begira](#) Gazteen Euskal Behatokiak urtero burutzen duen ikerketa da, honako helburu hau izanik: Euskadiko gazteek nola antzematen duten oraina eta, epe laburrean, zeintzuk diren beraien etorkizunerako aurreikuspenak jakitea.

Ikerketa gazteei beraiei telefonoz egindako inkesta batean oinarritzen da. Laugarren edizio honetako landa lana 2016ko azaroan burutu zen, 15 eta 29 urte bitarteko 1512 gaztek erantzun zuten inkesta medio.

Emaitzak 10 adierazletan laburbiltzen dira:

Lehen hiru adierazleek gaur egungo egoeraren balorazioa aztertzen dute ikuspuntu ezberdinetatik: norberarena eta taldearena:

1. Egungo egoeraren balorazio indizea
2. Norberaren poztasun indizea
3. Bizitzaren alderdien balantzea

Jarraian lan aurreikuspenei buruzko lau adierazle aztertu dira:

4. Lana galtzeko edo baldintzak okertzeko arriskua
5. Lana aurkitzea aurreikustea
6. Prestakuntzari lotutako lana izatea aurreikustea
7. Derrigorrez emigratu beharra aurreikustea

Hurrengo adierazlea, zortzigarrena hain zuzen ere, emantzipazioaren ingurukoa da:

8. Emantzipazioa zapuztuko dela aurreikustea

Azkenik, etorkizunarekiko aurreikuspenei buruzko bi adierazle aztertu dira:

9. Gazteen gaitasunekiko konfiantza indizea
10. Etorkizunarekiko konfiantza indizea

Aurrera Begira 2016 ikerketak honako hau ondorioztatzen du: EAEko gazteek egungo egoerari buruzko ikuspegi baikorra dute, bai eta etorkizunarekiko konfiantza handia ere. Behera egiten du lana galtzeko edo lan-egoera okertzeko arriskuak lan egiten dutenen artean, eta beren ikasketekin lotutako lana lortzeko itxaropenak gora egin du ikasleen artean. Lana lortzeko itxaropenean ez da funtsezko gorakadarik gertatu langabezia daudenen artean, baina derrigorrez emigratu beharko dutelako ustea zertxobait ahuldu da gazte guztien artean.

Beste alde batetik, gazteen errealitatea osatzen duten hamar alderdiri emandako garrantziaren eta alderdi horietako bakoitzean lortutako gogobetetasun pertsonalaren arteko balantzetik ondorioztatzen da lana dela, berriro ere, lehentasunez ekin beharreko arloa.

| AURRERA BEGIRA: GAZTEEN AURREIKUSPENEI BURUZKO ADIERAZLEAK            |      |      |                                    |      |
|-----------------------------------------------------------------------|------|------|------------------------------------|------|
|                                                                       | 2013 | 2014 | 2015                               | 2016 |
| 1. Egungo egoeraren balorazio indizea (0-100)                         | 60   | 62   | 66                                 | 67   |
| 2. Norberaren poztasun indizea (0-100)                                | 80   | 78   | 81                                 | 80   |
| 3. Bizitzaren alderdien balantzea: lehentasunez ekin beharreko arloak | Lana | Lana | Lana eta independentzia pertsonala | Lana |
| 4. Lana galtzeko edo baldintzak okertzeko arriskua (%)                | 57   | 47   | 52                                 | 42   |
| 5. Lana aurkitzea aurreikustea (%)                                    | 54   | 60   | 71                                 | 69   |
| 6. Prestakuntzari lotutako lana izatea aurreikustea (%)               | 46   | 56   | 65                                 | 68   |
| 7. Derrigorrez emigratu beharra aurreikustea (%)                      | 16   | 14   | 14                                 | 12   |
| 8. Emantzipazioa zapuztuko dela aurreikustea (%)                      | 45   | 48   | 49                                 | 46   |
| 9. Gazteen gaitasunekiko konfiantza indizea (0-100)                   | 66   | 69   | 75                                 | 73   |
| 10. Etorkizunarekiko konfiantza indizea (0-100)                       | 64   | 74   | 74                                 | 72   |

[Aurrera Begira 2016](#) txostenean honako hau dago eskuragarri:

- ✓ 10 adierazleen emaitzak 2016an, sexuaren, adin taldeen eta lurralde historikoaren arabera.
- ✓ Adierazle bakoitzaren bilakaera, sexuaren, adin taldeen eta lurralde historikoaren arabera.
- ✓ Adierazleen eraikuntzari buruzko informazio metodologikoa.
- ✓ Adierazleak eraikitzeko erabili diren inkestako galdera guztien erantzunak, sexuaren, adin taldeen eta lurralde historikoaren arabera.


Nahi izanez gero [laburpena](#) kontsulta daiteke; bertan 10 adierazleen emaitza orokorrak eta bilakaera azaltzen dira.

## Euskadiko gazteen kopuruak % 25 behera egin du azken 10 urteotan

### ***Euskadin 2016ko urtarrilaren 1ean 15 eta 29 urte bitarteko 283.517 lagun zeuden***

Euskadiko egitura demografikoari buruzko datuak eskainiko ditu jarraian Gazteen Euskal Behatokiak. Datuok EUSTATEk Biztanleen Udal-Erroldaren Estatistikaren bidez jasotakoak dira. Datuak adierazten dutenez, 2016ko urtarrilaren 1ean 283.517 lagun zeuden Euskadin 15 eta 29 urte bitartekoak. Horien artean 144.480 mutilak ziren; beste 139.037, neskak.


2006 urtean 15 eta 29 urte bitarteko 377.395 lagun zeuden Euskadin. Ordutik, kopuru horrek % 25 behera egin du.



Lurralde historikoen arteko ezberdintasunei jotzen badiegu, begi bistakoa da Bizkaia dela jaitsiera portzentual bortitzena izan duen lurraldea. 2006an Bizkaian 15 eta 29 urte bitarteko 201.119 gazte bazeuden, 2016 urtean 145.601 dira (% 27,6ko jaitsiera). Araban, urte tarte berdinean, 57.001tik 42.433 gazte izatera pasa dira (% 25,6ko jaitsiera). Gipuzkoa da gazte kopuruaren murrizketa xumeena izan duen lurraldea baina horrela ere jaitsiera handia izan da, 2006ko 119.275tik 2016ko 95.483ra (% 19,9ko murrizketa).

| 15-29 urte bitarteko biztanleria | 2006    | 2007    | 2008    | 2009    | 2010    | 2011    | 2012    | 2013    | 2014    | 2015    | 2016    |
|----------------------------------|---------|---------|---------|---------|---------|---------|---------|---------|---------|---------|---------|
| Euskadi, guztira                 | 377.395 | 363.829 | 353.170 | 342.031 | 328.927 | 317.687 | 309.078 | 299.690 | 290.715 | 286.378 | 283.517 |
| Araba                            | 57.001  | 55.222  | 53.975  | 52.615  | 50.928  | 49.090  | 47.846  | 45.677  | 43.934  | 43.158  | 42.433  |
| Bizkaia                          | 201.119 | 194.429 | 188.025 | 181.582 | 174.116 | 167.564 | 162.281 | 156.557 | 150.787 | 147.686 | 145.601 |
| Gipuzkoa                         | 119.275 | 114.178 | 111.170 | 107.834 | 103.883 | 101.033 | 98.951  | 97.456  | 95.994  | 95.534  | 95.483  |

Gizarte batean 15 eta 29 urte bitartekoek hartzen duten portzentajezko proportzioa adierazten du gazteria indizeak. Euskadin indize horrek behera egiten dirau. 2006an % 17,8 bazen, 2016ko urtarriaren 1ean % 13,1era heldu da.



Datuak lurralde historikoen arabera aztertuz gero zera ikus dezakegu: Bizkaia da gazteria indizearik baxuena duen lurraldea (% 12,8). Jarraian Araba dago (% 13,2) eta geroago Gipuzkoa (% 13,4). Indize honen beherantzako bilakaera berdina izan da hiru lurralde historikoetan.

| Gazteria indizea | 2006 | 2007 | 2008 | 2009 | 2010 | 2011 | 2012 | 2013 | 2014 | 2015 | 2016 |
|------------------|------|------|------|------|------|------|------|------|------|------|------|
| Euskadi, guztira | 17,8 | 17,1 | 16,4 | 15,8 | 15,1 | 14,6 | 14,1 | 13,8 | 13,4 | 13,2 | 13,1 |
| Araba            | 18,9 | 18,0 | 17,4 | 16,8 | 16,0 | 15,4 | 14,8 | 14,3 | 13,7 | 13,4 | 13,2 |
| Bizkaia          | 17,8 | 17,1 | 16,4 | 15,7 | 15,1 | 14,5 | 14,0 | 13,6 | 13,2 | 12,9 | 12,8 |
| Gipuzkoa         | 17,4 | 16,6 | 16,0 | 15,4 | 14,8 | 14,4 | 14,0 | 13,8 | 13,5 | 13,5 | 13,4 |

Datuok eta beste hainbat Gazteen Euskal Behatokiaren Estatistiketan kontsulta daitezke, ***Biztanleria atalean***, hain zuzen ere.

# Kontsulta ezazu Gazteen Euskal Behatokiaren

## Gipuzkoako Gazteen Panoramika

### 2000tik Gipuzkoako biztanleria gaztea % 35 behera egin du

Gipuzkoako gazteei zuzendutako planifikazioan, bai eta programa eta politikak martxan ipintzeko erantzukizuna dutenen informazio beharrei erantzuna emateko, Gazteen Euskal Behatokiak txosten diagnostiko xumea aurkezten du, [Gipuzkoako gazteen egoera](#) aztertzen duena. Honez gain, datu-base interaktiboan lurralde honen informazioa azaltzen da adierazle gehienei dagokienez.

Txostena [publikazioan](#) bertan aurkituko duzu; gainerako datuak [datu-base interaktiboan](#) ere aurkitu ditzakezu. Jarraian Gipuzkoa eta Euskadi konparatzen dituen azken datu eskuragarrien laburpena duzu.

### GIPUZKOAKO GAZTEEN ADIERAZLEEN LABURPEN TAULA

#### Demografia eta biztanleria

|                                                                   | Urtea | Adina | Unitatea    | EAE     | Gipuzkoa |
|-------------------------------------------------------------------|-------|-------|-------------|---------|----------|
| 01. Biztanleria gaztea                                            | 2015  | 15-29 | Abs         | 286 378 | 95 534   |
| 02. Atzeritarrak den biztanleria gaztea                           | 2015  | 15-29 | Abs         | 36 426  | 11 996   |
| 03. Gazteria indizea                                              | 2015  | 15-29 | %           | 13,2    | 13,5     |
| 04. 64 urtetik gorakoen arabera gazteen ratioa                    | 2015  | 15-29 | %           | 62,5    | 64,1     |
| 05. Migrazio-saldoa                                               | 2015  | 15-29 | Abs         | 2559    | 1189     |
| 06. Ugalkortasun-tasa                                             | 2014  | 15-29 | 1000ko tasa | 26,3    | 26,8     |
| 07. Lehenengo seme-alaba izatean bataz besteko amatasunaren adina | 2015  | -     | Urteak      | 31,8    | 31,6     |

#### Hezkuntza

|                                              | Urtea | Adina | Unitatea      | EAE  | Gipuzkoa |
|----------------------------------------------|-------|-------|---------------|------|----------|
| 08. Eskola modu goiztiarrean utzitakoen tasa | 2014  | 18-24 | %             | 7,5  | 7,1      |
| 09. Bigarren Hezkuntzan graduatuen tasa      | 2014  | 20-24 | %             | 85,9 | 86,2     |
| 10. Goi-mailako hezkuntza titulazioa         | 2014  | 30-34 | %             | 47,5 | 50,8     |
| 11. Zientzia eta teknologian graduatuen tasa | 2012  | 20-29 | 1000ko tasa   | 28,2 | -        |
| 12. 15 urteko ikasleen irakurtzeko gaitasuna | 2012  | 15    | Puntu kopurua | 498  | -        |
| 13. 15 urteko ikasleen matematika gaitasuna  | 2012  | 15    | Puntu kopurua | 505  | -        |
| 14. 15 urteko ikasleen zientzia gaitasuna    | 2012  | 15    | Puntu kopurua | 506  | -        |
| 15. Euskararen ezaguera                      | 2014  | 15-29 | %             | 64,4 | 74,8     |
| 16. Ingelesaren ezaguera                     | 2014  | 15-29 | %             | 54,4 | 55,4     |
| 17. Hiruletasun-tasa                         | 2014  | 15-29 | %             | 30,9 | 36,3     |

|                                                                            |      |       |   |      |      |
|----------------------------------------------------------------------------|------|-------|---|------|------|
| 18. Euskara komunikazio-hizkuntza duten ikasleak                           | 2014 |       | % | 61,9 | 77,4 |
| 19. Ikasketak, lana edota boluntario izateko atzerriara joan diren gazteak | 2013 | 15-29 | % | 50,2 | 52,7 |
| 20. Euskal hezkuntza-sistemaren balorazio positiboa                        | 2012 | 15-29 | % | 58,6 | 57,1 |

#### Enplegua eta egoera ekonomikoa

|                                                                              | Urtea | Adina | Unitatea    | EAE    | Gipuzkoa |
|------------------------------------------------------------------------------|-------|-------|-------------|--------|----------|
| 21. Jardueraren tasa                                                         | 2015  | 16-29 | %           | 51,4   | 51,9     |
| 22. Okupazio tasa                                                            | 2015  | 16-29 | %           | 37,1   | 38,6     |
| 23. Langabezia tasa                                                          | 2015  | 16-29 | %           | 27,9   | 25,7     |
| 24. Epe luzeko langabezia tasa                                               | 2015  | 16-29 | %           | 10,7   | 9,6      |
| 25. Soldatapeko langileen aldi baterako enplegu-tasa                         | 2014  | 16-29 | %           | 57,0   | -        |
| 26. Lanaldi partzialeko enplegu-tasa                                         | 2015  | 16-29 | %           | 30,7   | -        |
| 27. Laneratze tasa unibertsitateko ikasketen ostean                          | 2013  | -     | %           | 69,1   | -        |
| 28. Laneratze tasa LHko ikasketen ostean                                     | 2013  | -     | %           | 61,2   | -        |
| 29. Ikasketak bukatzean prestakuntzari lotutako enplegua izatea aurreikustea | 2015  | 15-29 | %           | 64,9   | 70,4     |
| 30. Prestakuntzari lotutako lana                                             | 2015  | 16-29 | %           | 52,7   | 55,6     |
| 31. Bataz besteko soldata garbia                                             | 2015  | 16-29 | Euroak      | 996,39 | 1014,13  |
| 32. Laneko ezbehar-kopuruaren indizea                                        | 2015  | 16-34 | 1000ko tasa | 36,4   | 32,2     |
| 33. Autoenplegurako asmoak izan dituzten gazteak                             | 2015  | 15-29 | %           | 27,6   | 29,4     |
| 34. Bere kontura lan egiten dutenen tasa                                     | 2015  | 20-29 | %           | 6,3    | 8,3      |
| 35. Lana galtzeko edo baldintzak okertzeko arriskua                          | 2015  | 16-29 | %           | 51,7   | 52,5     |
| 36. Derrigorrez emigratu beharra aurreikustea                                | 2015  | 15-29 | %           | 13,7   | 17,6     |
| 37. Hilero 600 eurotik gorako baliabide ekonomikoak                          | 2015  | 15-29 | %           | 31,4   | 32,9     |
| 38. Etxebizitza gazteen pobrezia-arriskua                                    | 2014  | <35   | %           | 17,0   | 10,3     |
| 39. Pobrezia errealtaren tasa                                                | 2014  | 16-29 | %           | 8,2    | 6,7      |
| 40. Estalitako pobrezia-aren tasa                                            | 2012  | 16-29 | %           | 8,1    | -        |

#### Emantzipazioa eta etxebizitza

|                                                                                                           | Urtea | Adina | Unitatea | EAE    | Gipuzkoa |
|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------|-------|-------|----------|--------|----------|
| 41. Emantzipazio tasa                                                                                     | 2015  | 18-34 | %        | 40,9   | 40,8     |
| 42. Emantzipaziorako bataz besteko adina                                                                  | 2011  | -     | Urteak   | 29,9   | 28,9     |
| 43. Emantzipaziorako adin erreal eta adin idealaren arteko aldea                                          | 2011  | 18-34 | Urteak   | 5,3    | 4,5      |
| 44. Alokairuko emantzipazioa                                                                              | 2015  | 18-34 | %        | 55,3   | 57,3     |
| 45. Emantzipazioa zapuztuko dela aurreikustea                                                             | 2015  | 15-29 | %        | 48,9   | 43,5     |
| 46. Arazo ekonomikoengatik gurasoen etxebizitzara itzultzen diren gazteak                                 | 2015  | 18-34 | %        | 2,8    | 1,5      |
| 47. Etxebizitzaren garestitzearen pertzepzioa emantzipatzeko zailtasun gisara                             | 2015  | 18-34 | %        | 79,3   | 83,0     |
| 48. Etxebizitza librea alokatzearen kostua                                                                | 2015  | 18-34 | %        | 63,8   | 67,5     |
| 49. Etxebizitza librea jabetzan hartzearen kostua                                                         | 2015  | 18-34 | %        | 53,4   | 58,0     |
| 50. Merkatuko alokairu errentaren eta etxebizitza alokatzeko gehieneko errenta onargarriaren arteko aldea | 2015  | 18-34 | €        | 462,04 | 506,6    |
| 51. Jabetzako babes ofizialeko etxebizitzan bizi diren emantzipatutako gazteak                            | 2015  | 18-34 | %        | 6,3    | 9,5      |
| 52. Alokairu sozialeko etxebizitzan bizi diren emantzipatutako gazteak                                    | 2015  | 18-34 | %        | 2,8    | 3,9      |

|                                                                       |      |       |             |      |      |
|-----------------------------------------------------------------------|------|-------|-------------|------|------|
| 53. Etxebizitzako kostuak ordaintzeko gehiegizko esfortzua            | 2015 | 18-34 | %           | 21,3 | 16,8 |
| 54. Etxebizitza-gastuak ordaintzeko zailtasunak dituzten gazteak      | 2015 | 18-34 | %           | 24,4 | 23,4 |
Datu hauek [Gazteen Euskal Behatokiaren Estatistikan](#) ere kontsulta daitezke, **Lana** ataleko **Jarduera, Okupazioa eta Langabezia** azpiatalean.

## **2017ko bigarren hiruhilekoan 16 eta 29 urte bitarteko gazteen langabezia-tasa % 15,9koa da**

***Iazko hiruhileko berdinarekin alderatuta zazpi puntu baino gehiago jaitsi da***

Biztanleriaren Jardueraren Arabera sailkatzeko inkestaren (BJA) 2017ko bigarren hiruhilekoari dagozkion datuak argitaratu berri direla-eta, Euskadiko Autonomia Erkidegoko (EAEko) gazteen langabeziaren egoera aztertu du [Gazteen Euskal Behatokiak](#).

Eustatek, Euskal Estatistika Erakundeak, hiru hilean behin lantzen du inkesta hau eta Gazteen Euskal Behatokiari 16 eta 29 urte bitarteko biztanleriaren datuak helarazi dizkio.

### **Zer adierazten du langabezia-tasak?**

Enplegurik ez duten baina lana aktiboki bilatzen ari diren pertsona aktiboen (lan egiteko moduan egonik, azken lau asteetan lana bilatzeko gestioaren bat egiten duten pertsonen) ehunekoa adierazten du langabezia-tasak. Bertan ez dira sartzen lan bila ez dabiltzan ikasleak edo lan egin ezin duten ezgaituak.

### **Zein da gazteen langabezia-tasa 2017ko bigarren hiruhilekoan?**


EAEko 16 eta 29 urte bitarteko gazteen langabezia-tasa % 15,9koa da 2017ko bigarren hiruhilekoan, 16 urtetik gorako biztanleria osoarena (% 11,0) baino handiagoa.

### **Zein bilakaera izan du tasa honek azken urtean?**

Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta langabezia-tasa ia hiru puntu jaitsi da (% 18,7koa baitzen 2017ko lehenengo hiruhilekoan).

Eta iazko hiruhileko berdinari erreparatzen badiogu jaitsiera zazpi puntukoa baino handiagoa izan da, orduko % 23,2tik oraingo % 15,9ra pasatuz.


Gazteen langabezia-tasaren jaitsiera bat dator biztanleria orokorrari dagokion tasak izandakoarekin, baina gazteen kasuan jaitsiera nabarmenagoa izan da.



### Badago alderik sexu edo lurralde historikoaren arabera?

Gizon gazteen langabezia-tasa emakume gazteena baino handixeagoa da (% 17,1 eta % 14,5, hurrenez hurren).

Lurralde historikoei dagokienez, Arabak du gazteen langabezia-tasarik handiena (% 19,3); ondoren Bizkaikoa dator (% 17,7) eta Gipuzkoan jaso da tasarik txikiena (% 11,8).




## **Euskadiko hiru gaztetik bat atzerrira joan da ikastera, lan egitera, ikertzera edota boluntario-lanak egitera**

### **Arrazoi nagusia hizkuntzak ikastea da**

Euskadiko 15 eta 29 urte bitarteko gazteen %22,6 atzerrira joan dira noizbait hizkuntzak ikastera edota hobetzera. % 14,4 ikasteko edo eskolako edo unibertsitateko ikasle-trukeetan parte hartzeko irten dira atzerrira. % 7,5ek diote noizbait lan egin dutela atzerrian. % 5,9k ikasketa-praktikak edo ikerketaren bat egin dituzte kanpoan. Azkenik, % 4,6k esan dute boluntario edo garapenerako lankide gisa lan egin dutela kanpoan edo atzerrian izandako auzolandegietan parte hartu dutela.

Aurreko edozein arrazoi dela-eta, 15 eta 29 urte bitarteko gazteen % 31,6k horrelako eskarmenturen bat izan dute atzerrian.




Arrazoiak hizkuntzak ikastea edo hobetzea denean, ikus dezakegu emakume gazte gehiago joan direla atzerrira, gizon gazteak baino (% 25,0 eta % 20,2 hurrenez hurren); ikasteko edota eskolako edo unibertsitateko ikasle-trukeetan parte hartzeko bada, emakumeek berriro dituzte gizonak baino portzentaje handixeagoak (% 16,5 emakume gazteen artean eta % 12,3 gizon gazteen artean); bai eta asmoa boluntario-lanak egitea edo auzolandegietan parte hartzea denean ere (emakumeen % 5,7 eta gizonen % 3,7). Aitzitik, emakumeak gizonak baino gutxiagotan joaten dira atzerrira lan egitera (emakumeen %6,8 eta gizonen % 8,2).

25 urtetik beherako gazteek adin horretatik gorakoek baino eskarmentu handiagoa dute atzerrira joaten helburua hauetako bat denean: hizkuntzak ikastea edo hobetzea, edo ikastea edo eskolako edo unibertsitateko ikasle-trukeetan parte hartzea. Adinak gora egin ahala gehiago dira atzerrira ikasketa-praktikak egitera edo ikertzerantz joan direnak, bai eta lan egitera irten direnak ere. Boluntario-lanak egitera, garapenerako lankidetzak egitera edo auzolandegietan parte hartzerantz joan direnen portzentajeak txikiak badira ere, nabarmenagoak dira 20 urtetik gorakoen artean, adin hori bete gabe dutenen artean baino.



Zenbat eta ikasketa-maila altuagoa izan, orduan eta handiagoa da atzerrira joandako gazteen portzentajea; eta joera hori aipatutako arrazoi guztiak aztertzean ikusten da.

**Ondoko arrazoi bakoitza dela-eta, atzerrira irtendako Euskadiko 15 eta 29 urte bitarteko gazteak, ikasketa mailaren arabera (%)**



*Iturria: Gazteen Euskal Behatokia ("Euskadiko gazteak 2016" ikerketaren aurrerapen-datuak)*

Gazteek beren burua kokatzen duten gizarte-mailak ere aldeak ezartzen ditu. Beren burua goi-mailan edo maila ertain-altuan kokatzen dutenak dira ondoko arrazoiengatik gehien irtendakoak: hizkuntzak ikasteko edo hobetzeko (% 41,8), ikasteko edo eskolako edo unibertsitateko ikasle-trukeetan parte hartzeko (% 31,1), ikasketa-praktikak egiteko edo ikertzeko (% 11,5), bai eta boluntario edo garapenerako lankide gisa lan egiteko edo auzolandegietan parte hartzeko ere (% 9,3). Atzerrira joateko arrazoiak lan egitea izan denean, aldiz, eskarmentu handiena beren burua behe-mailan edo maila ertain-baxuan kokatutakoek dute (% 12,1).

Datu hauek Gazteen Euskal Behatokiak 2016an eginiko inkesta baten emaitzak dira. Inkesta horretan Euskadiko 15 eta 29 urte bitarteko gazteen lagin adierazgarria elkarriketatu zen. Lagin hori 1500 gaztek osatu zuten eta inkestan gai honi eta beste hainbat gaiari buruz galdetu zitzaion. Hemen aurkeztu ditugun datuak "Euskadiko gazteak 2016" izenburuarekin argitaratuko den ikerketaren aurrerapen-datu batzuk dira. Ikerketa hori Gazteen Euskal Behatokiak lau urtean behin burutzen duen bildumaren bostgarrena izango da eta bertan, aurrekoetan bezala, 30 urtetik beherako gazteen baloreak, jarrerak, iritziak eta portaerak aztertuko dira.

## **2017ko lehen hiruhilekoan 16 eta 29 urte bitarteko gazteen**

**% 39,3 lanean ari da**

***Gazteen langabeziaren beherakada berretsi egiten da eta jada 2010eko balioetan dabil***

Maiatzaren 1a **Lanaren Nazioarteko Eguna** dela-eta, EAEko 16 eta 29 urte bitarteko gazteen jarduera, okupazio eta langabezi tasak aztertu ditu [Gazteen Euskal Behatokia](#)k. Horretarako, Biztanleria Jardueraren Arabera (BJA) inkestaren 16 eta 29 urte bitarteko biztanleei buruzko datuak erabili dira. EUSTATEk, Euskal Estatistika Erakundeak, hiru hilean behin prestatzen du BJA.

**Jarduera-tasak** zera adierazten du: adin talde batean zenbat pertsona dauden lan egiteko moduan. Lanean daudenak eta lan bila dabilzan langabetuak sartzen dira multzo horretan eta dagokion adin taldeko biztanleria osoaren arabera kalkulatzen da portzentajea.

2017ko lehen hiruhilekoan Euskadiko gazteen jarduera-tasa % 48,4koa da, hau da, **EAEko 16 eta 29 urte bitarteko 100 gaztetatik ia 48 lanean ari dira, edo lan egiteko moduan daude eta lan bila dabilza.**


Euskadiko gazteen jarduera tasa beherantz joan da azken urteotan: 2006ean % 59,2koa zen eta % 48,4koa 2017ko hasieran. 16 urteko eta adin horretatik gorako biztanleen jarduera-tasa bere horretan izan da azken urteotan, gutxi gorabehera, gazteena ez bezala, eta gaur egun % 56koa da.

**Okupazio-tasak** adin-tarte jakin batean lanean dauden pertsonen ehunekoa adierazten du. EAEko gazteen enplegu-tasa % 39,3koa da 2017ko lehen hiruhilekoan. Horrek esan nahi du EAEn 16 eta 29 urte bitarteko adina duten **100 lagunetik 39 lanean ari direla une honetan.**

Okupazio tasak 2016ko batez bestetik bi puntu gora egin du eta horrek, zenbaki absolutuetan, 104.600 gazte lanean ari direla dakar.

Okupazio tasa Gipuzkoan Araban baino altuagoa da (% 40,4 eta % 37,8, hurrenez hurren). Bizkaia, ostera, Euskadiren batez bestekoaren parean dago (% 39,1).

**16 eta 29 urte bitarteko jarduera, okupazio eta langabezi tasen bilakaera  
Euskadin (%)**



*Iturria: Gazteen Euskal Behatokiak egina EUSTATen datuak oinarri hartuta (BJA)*

2017ko lehen hirulekoan gizon gazteen okupazio tasa neska gazteena baino altuagoa da (% 41,4 eta % 37,3 hurrenez hurren); honek azken urteotako joeraren eraldaketa ekarri du.

**Langabezia-tasak** hauxe adierazten du: lanik ez duten baina lan egiteko moduan dauden eta lan bila aktiboki dabilen pertsona aktiboen ehunekoa (azken lau asteetan lana biltzeko gestioaren bat egin dute). Definizio horretan ez dira sartzen ikasleak ezta lan egin ezin duten ezinduek ere.

2017ko lehen hirulekoan 16 eta 29 urte bitarteko gazteen langabezi tasak nabarmen egin du behera 2015ean hasi zen joeratik gaur egunera. Hiruhileko honetan gazteen langabezi tasa % 18,7koa da, hau da, 24.000 gazte.

2007tik lehenengo aldiz, emakume gazteen langabezi tasa gizon gazteena baino altuagoa da. Neskena % 19,7 da, gizonena, aldiz, % 17,8 da.

Lurralde historikoei dagokienez, Gipuzkoaren langabezi tasa nabarmen baxuagoa da (% 16,6). Bizkaiakoa % 19,6koa da eta Arabarena % 20,2koa.

Gazteen langabezia-tasa biztanleria guztiarenarekin alderatzen badugu zera ikus dezakegu: azken hamarkadan ez bezala, gazteenak ez biztanleria guztiarena bikoitzen (% 11,4). Gaur egun, bi adin-taldeen arteko aldea 7 puntukoa da.

Beste aldetik, EAEko gazteen langabezi tasa Espainiako gazteenarekin alderatzen badugu, **Espainiako gazteen egoera nahiko txarragoa** dela ikus dezakegu: Espainiako gazteen langabezia-tasa 2016ko laugarren hiruhilekoan % 31,7koa izan da, 2017ko lehen hiruhilekoan Euskadiko gazteena baino 13 puntu gora.

Datuok [Gazteen Euskal Behatokiaren estatistiketan](#) ere kontsulta daitezke, Lana izeneko atalaren "Jarduera, okupazioa eta langabezia" azpiatalean, hain zuzen ere.

## Emakume gazteek, gizon gazteekin alderatuta, lana lortzeko itxaropen handiagoa dute

**Baina lana duten emakumeen artean, lana galtzeko edo baldintzak okertzeko arrisku handiagoa antzematen da, gizon landun gazteen artean baino**

Gazteen Euskal Behatokiak [Aurrera Begira 2016](#) txostena argitaratu berri du Euskadiko gazteen egungo egoeraren pertzepzioa eta epe laburreko etorkizunerako aurreikuspenak ezagutzeko. Bertan begi bistakoak dira emakume eta gizonen pertzepzioen arteko aldeak.

- ✓ Epe laburrean emakumeek lana lortzeko aurreikuspen hobeak dituzte: lana bilatzen ari diren emakume gazteen % 74k urtebeteko epean lana lortuko dutela uste dute. Gizonen artean, oster, % 64k.
- ✓ Dena den, lanean dabiltzan emakumeek lana galtzeko edo lan baldintzak okertzeko arrisku handiagoa antzematen dute. Izan ere, haien artean % 45ek uste du urtebeteko epean lana galdu edo lan baldintzak okertuko direla, gizonen artean, aldiz % 38k.
- ✓ Emantzipazioari dagokionez, emakumeak gizonak baino egoera hobean daude. Urtebetean ezin izango direla emantzipatu nahi izan arren edo beren kontura bizi diren arren gogoz kontra gurasoen etxera itzuli beharko dutenen portzentajeak handiagoak dira gizon gazteen artean emakume gazteen artean baino.
- ✓ Azkenik, emakumeek gizonak baino konfiantza handiagoa dute gazteek oro har dituzten gaitasunetan, bai eta etorkizunarekiko konfiantza handiagoa dute.

|  AURRERA BEGIRA: GAZTEEN AURREIKUSPENEI BURUZKO ADIERAZLEAK |           |         |         |
|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----------|---------|---------|
|                                                                                                                                                | Emakumeak | Gizonak | Guztira |
| Egungo egoeraren balorazio indizea (0-100)                                                                                                     | 66        | 67      | 67      |
| Norberaren poztasun indizea (0-100)                                                                                                            | 81        | 80      | 80      |
| Lana galtzeko edo baldintzak okertzeko arriskua (%)                                                                                            | 45        | 38      | 42      |
| Lana aurkitzea aurreikustea (%)                                                                                                                | 74        | 64      | 69      |
| Prestakuntzari lotutako lana izatea aurreikustea (%)                                                                                           | 67        | 69      | 68      |
| Derrigorrez emigratu beharra aurreikustea (%)                                                                                                  | 12        | 13      | 12      |
| Emantzipazioa zapuztuko dela aurreikustea (%)                                                                                                  | 42        | 50      | 46      |
| Gazteen gaitasunekiko konfiantza indizea (0-100)                                                                                               | 75        | 71      | 73      |
| Etorkizunarekiko konfiantza indizea (0-100)                                                                                                    | 73        | 70      | 72      |

Nahi izanez gero [txostena osoa](#) eta emaitzen bilakaera kontsulta daitezke sexu, adin eta lurralde historikoka banatuta.

**Bai mutilek, bai neskek uste dute prestakuntza berdina izanik mutilek aukera gehiago dituztela lanpostu bat eskuratzeko**

**Emakume gazte langileek gizon gazte langileek baino prekarietate handiagoa jasan behar dute**

[Emakumeen Nazioarteko Eguna](#) (martxoak 8) dela eta, [Gazteen Euskal Behatokiak](#) zera gogorarazi nahi du: emakumeek gizonen baino prekarietate handiagoa jasaten jarraitzen dute. Era berean, datu berriak plazaratu nahi ditu lana eskuratzeko oraindik ere gizonen alde dagoen aukera ezberdintasunari buruz.

Gazteen Euskal Behatokiaren azken publikazioak, [Gazteak eta enplegua Euskadin 2015](#), emakume eta gizon gazteen lan egoerari ekiten dio. Bertan begi-bistakoa da emakumeek gizonen baino aldi baterako kontratu gehiago dituztela, lanaldi partzialetan lan gehiago egiten dutela, soldata baxuagoak dituztela eta enplegua galtzeko edo prekario bihurtzearen aurreikuspen altuagoa dutela.

- ✓ 16 eta 29 urte bitarteko emakumeen % 51k aldi baterako kontratua du. Gizonen artean, ostera, % 38,2k.
- ✓ Lanean ari diren emakume gazteen % 48,9 lanaldi partzialean egiten dute (gehienetan beren borondatearen kontra; adibidez, lanaldi osoko lanik aurkitu ez dutelako). Bestetik, gizonen artean % 22,1 dira.
- ✓ Lanaldi osoan daudenen artean neurtuta (emakume gazteen lanaldi partzialen kopuru handiagoaren eragina kentzeko), 30 urte baino gutxiagoko emakumeen batez besteko hileko soldata 1119 eurokoa da. Adin tarte berdineko mutilen soldata, aurrean, 1242koa.
- ✓ 16 eta 29 urte bitarteko emakume langileen artean % 25,8k lana galtzeko arrisku handia hautematen du; beste % 10,0k uste du lana ez duela galduko, baina lana prekario bihurtzeko arriskua dagoela aurreikusten du. Lanean ari diren gizonen artean, ostera, % 21,5ek uste du lana galtzeko arriskua duela eta beste % 7,6k beren lan baldintzak okertzearen arriskua hautematen du. Guztira, emakume gazteen % 35,8k hautematen dute lana galtzeko edo lan baldintzak okertzeko arriskua. Adin berdineko mutilen artean % 29,1 dira.

| 16 eta 29 urte bitarteko gazteen lan balditzen arteko ezberdintasunak    |           |         |
|--------------------------------------------------------------------------|-----------|---------|
|                                                                          | Sexua     |         |
|                                                                          | Emakumeak | Gizonak |
| Aldi baterako kontratua (%)                                              | 51,0      | 38,2    |
| Lanaldi partziala (%)                                                    | 48,9      | 22,1    |
| Batez besteko soldata lanaldi osoan (€)                                  | 1119      | 1242    |
| Enplegua galtzeko edo prekario bihurtzearen aurreikuspena (%)            | 35,8      | 29,1    |
| Iturria: Gazteen Euskal Behatokia ("Gazteak eta enplegua Euskadin 2015") |           |         |

Bestetik, Gazteen Euskal Behatokiak datu aurrerapena ere aurkezten du. Datuok Gazteen Euskal Behatokiak 2016an 15 eta 29 urte bitarteko 750 neskari eta 750 mutili eginiko inkesta batetik datoz eta *Euskadiko gazteak 2016* ikerketan agertuko dira.


Inkesta horretan gazteei lanpostu bat eskuratzeko prozesuan zeudela imajinatzeko eskatu zitzaion. Lanpostua beren ikasketa eta prestakuntzari egokituta zegoen eta hautaketa prozesuan lehiakidea beren adina, prestakuntza eta esperientzia berdina zuen mutila edo neska zen (gazte bakoitzari beste sexuko lehiakidea zela esan zitzaion). Inkestatuei galdetu zitzaion beren ustez zeinek zeukan lanpostua eskuratzeko aukera gehiago: mutilak, mutila izateagatik; neskak, neska izateagatik; edo batek ere ez, uste zutelako sexuak ez zuela inolako eraginik kasu horretan.

Mutil eta neska gehienek uste zuten hautagaien sexuak ez zuela eraginik; hala ere, mutilek neskek baino neurri handiagoan zioten hori (% 63 eta % 58, hurrenez hurren).

Bestalde, nesken % 28k uste zuen mutilak berak baino aukera gehiago zituela, mutila izateagatik, eta gauza bera zeritzoten mutilen % 21ek ere.

Nesken % 8k eta mutilen % 10ek bakarrik uste zuen neskak aukera gehiago izango zituela, neska izateagatik.

Emakume gazteek lana eskuratzeko gizonen baino aukera gutxiago dituztela (prestakuntza bera izanda ere) uste dutenen portzentajeak 2012ko neurrian jarraitzen du, baina 2008 urtearekiko igo egin da (krisi ekonomikoaren aurreko egunetan langabezia tasak baxuagoak ziren).



## **Euskadin bizi diren 30 urtetik beherako gazte gehienek ez dute inoiz beren kontura lan egiteko aukera aintzat hartu**


### **16 eta 29 urte bitarteko gazteen % 2,4k autonomoen erregimenean edo enpresaburu moduan lan egiten dute**

Jarraian aurkeztuko diren datuak "[Gazteak eta enplegua Euskadin 2015](#)" ikerketatik datoz. Ikerketa hori [Gazteen Euskal Behatokia](#)k burutu du eta horretarako inkesta baten emaitzetan oinarritu da. Ia 2000 gazte elkarrizketatu dira Gazteen Euskal Behatokiak zuzendutako inkesta horretan.

Ikerketaren datuok adierazten dute Euskadin bizi diren 16 eta 29 urte bitarteko gazteen gehiengoak (% 70,9k) ez duela inoiz ere izan norberaren kontura lan egiteko ekimenik, ezta pentsatu ere. Gazteen % 16,1ek esaten du pentsatu izan duela noizbait, baina azkenean bere kontura lanik ez egitea erabaki duela. Eta % 1,2k lan egin du noizbait autonomoen erregimenean edo enpresaburu moduan, baina orain ez dago egoera horretan.

Bestalde, Euskadin bizi diren 30 urtetik beherako gazte guztien % 2,4k adierazten du autonomoen erregimenean edo enpresaburu moduan lan egiten duela, eta % 8,5 ari da aukera hori serio aztertzen. Esan dezakegu, horrenbestez, autoenplegurako ekimena duela Euskadin hamar gaztetik batek (% 10,9k).

Nabarmentzekoa da ez dutela inoiz ere aukera hori aintzat hartu langabezia daudenen bi herenek (% 67,8k). Langabezia daudenen % 22,4k pentsatu izan du aukera hori aztertzea, baina ez du aurrera egitea erabaki duela. Langabezia daudenen % 8,9k pentsatu izan du aukera hori serio aztertzea, baina orain ez dago egoera horretan.



Oro har, emakumeek baino autoenplegurako joera handiagoa dute gizonak. Gaur egun, gizon gazteen % 3,1ek egiten du lan bere kontura, eta emakumeen % 1,7k lan egiten du erregimen horretan. Horrez gainera, gizonen % 9,5 ari da serio aztertzen aukera hori, eta emakumeen artean, berriz, % 7,5.

Autonomoen eta enpresaburuen ehunekoa handiagoa da 24 urtetik gorakoen artean, eta 25-29 adin-tarte horretan gainerako taldeetan baino gehiago dira iraganean autonomo edo enpresaburu izan direnak eta autoenplegurako urratsa emateko aukera serio aztertzen ari direnak (edo, aukera hori aztertu, baina aurrera ez egitea erabaki dutenak).

| Autoenplegurako jarrera 16 eta 29 urte bitarteko gazteen artean, sexuaren eta adin taldeen arabera |         |           |         |              |            |
|----------------------------------------------------------------------------------------------------|---------|-----------|---------|--------------|------------|
| (%)                                                                                                | GUZTIRA | Sexua     |         | Adin taldeak |            |
|                                                                                                    |         | Emakumeak | Gizonak | 16-24 urte   | 25-29 urte |
| Gaur egun autonomoak, profesional liberalak edo enpresaburuak dira                                 | 2,4     | 1,7       | 3,1     | 1,4          | 3,8        |
| Garai batean autonomoak, profesional liberalak edo enpresaburuak izan ziren baina gaur egun ez     | 1,2     | 1,3       | 1,1     | 0,2          | 2,6        |
| Aukera hori serio aztertzen ari dira                                                               | 8,5     | 7,5       | 9,5     | 7,5          | 9,9        |
| Aukera hori aztertu dute baina aurrera ez egitea erabaki dute                                      | 16,1    | 15,7      | 16,5    | 14,0         | 18,9       |
| Ez dute inoiz aukera hori aintzat hartu                                                            | 70,9    | 73,2      | 68,9    | 76,0         | 64,1       |
| Ed/Ee                                                                                              | 0,8     | 0,7       | 1,0     | 0,9          | 0,7        |
| GUZTIRA                                                                                            | 100     | 100       | 100     | 100          | 100        |
| Iturria: Gazteen Euskal Behatokia ("Gazteak eta enplegua Euskadin 2015")                           |         |           |         |              |            |

Egin dituzten ikasketak aintzat hartuta, ikusten da prestakuntza-zikloren bat amaitu dutenak direla gehien aztertu dutenak autoenpleguaren aukera: % 35ek aztertu du aukera hori, gero aukera hori gauzatu duen ala ez aintzat hartu gabe (ehuneko horretan sartzen dira gaur egun norberaren kontura lanean ari direnak eta noizbait erregimen horretan lan egin dutenak, autonomo izateko aukera aztertu eta aukera hori baztertu dutenak, eta gaur egun aukera hori serio aztertzen ari direnak).

Zer bilakaera izan du azken urteetan norberaren kontura lan egiteko ekimenak, goranzkoa ala beheranzkoa?


Autoenpleguaren alorrean eskarmentua duten gazteen ehunekoak behera egin du 2015. urtean aurreko urteekiko; hau da, gutxiago dira, gaur, autonomoak, profesional liberal edo enpresaburuak eta, gaur egun horrelako lanik egin ez arren, noizbait erregimen horretan lan egin dutenak.

Era berean, 2015. urtean behera egin du zertxobait, erregimen horretan lan egin ez arren, noizbait aukera hori aztertu dutenen ehunekoak. 2013. urtean izan zen handiena beren kontura lan egiteko aukera aztertu zuten gazteen ehunekoa: urte horretan, gazteen % 29,3k aztertu zuen serio edo, aztertu ondoren, baztertu zuen bere kontura lan egiteko aukera.

| Autoenplegurako jarreraren bilakaera 16 eta 29 urte bitarteko gazteen artean                     |      |      |      |      |      |
|--------------------------------------------------------------------------------------------------|------|------|------|------|------|
| (%)                                                                                              | 2004 | 2008 | 2011 | 2013 | 2015 |
| Gaur egun autonomoak, profesional liberalak edo enpresaburuak dira                               | 3,1  | 3,9  | 3,2  | 3,6  | 2,4  |
| Garai batean autonomoak, profesional liberalak edo enpresaburuak izan ziren baina gaur egun ez * | 0    | 0    | 1,4  | 0,9  | 1,2  |
| Aukera hori serio aztertzen ari dira                                                             | 6,9  | 10,4 | 11,1 | 11,9 | 8,5  |
| Aukera hori aztertu dute baina aurrera ez egitea erabaki dute                                    | 14,4 | 13,6 | 12,1 | 17,4 | 16,1 |
| Ez dute inoiz aukera hori aintzat hartu                                                          | 74,4 | 70,8 | 71,6 | 65,4 | 70,9 |
| Ed/Ee                                                                                            | 1,2  | 1,3  | 0,6  | 0,9  | 0,8  |
| GUZTIRA                                                                                          | 100  | 100  | 100  | 100  | 100  |
| * Erantzun aukera hori ez zen kontuan hartu 2004 eta 2008 urteetan                               |      |      |      |      |      |
| Iturria: Gazteen Euskal Behatokia ("Gazteak eta enplegua Euskadin 2015")                         |      |      |      |      |      |

30 eta 34 urte bitarteko pertsona gehienek ere ez dute inoiz ere pentsatu beren kontura lan egiteko aukera baliatzerik (% 59,6). Hala ere, adin-tarte horretan autoenpleguaren aukera aztertu dutenak (gerora aukera hori baliatu ote duten ala ez aintzat hartu gabe) 30 urtetik beherakoen artean baino gehiago dira.

30 eta 34 urte bitarteko adinean dauden pertsonen % 8,3k adierazten du langile autonomoa, profesionala liberala edo enpresaburu dela, % 4,7k dio garai batean erregimen horietakoren batean lan egin zuela, baina orain ezetz; % 19,5ek azaldu du ideia aztertu zuela, baina ez zuela horretarako urratsik eman, eta, gaur egun, % 7,7 ari da serio aztertzen aukera hori (azken ehuneko hori zertxobait handiagoa da 30 urtetik beherakoen artean, adin horretatik gorakoen artean baino).



## Otsailak 22: Emakume eta gizonen soldata-berdintasunaren aldeko eguna

### ***Lanaldi osoan lan egiten duten gizon eta emakume gazteen soldaten arteko aldea 100 eurokoa baino handiagoa da***

[Gazteen Euskal Behatokia](#)k Euskadiko gizon eta emakume gazteen soldaten arteko aldeak daudela adierazi nahi du. Aurkezten dituen datuak "[Gazteak eta enplegua Euskadin 2015](#)" ikerketan kaleratu ditu. Ikerketa hori behatokiak berak egin du 30 urtetik beherako ia 1400 gaztek erantzun duten inkesta bat oinarri hartuta.

Euskal Autonomia Erkidegoan 16 eta 29 urte bitarteko gazte okupatuak 1000 euro inguru irabazten dituzte, batez beste, hilean (zehazki, 996 euro), gazteek beraiek emandako erantzunen arabera.

Gizon gazteek emakume gazteek baino gehiago irabazten dute: batez beste 1125 euro irabazten dituzte gizonak, eta 867 euro emakumeak. Kontuan izan behar da lanaldi partzialean lan egiten dutela gaur egun emakume gazteen ia erdiek (emakume gazte okupatuak % 48,9k; gizonen kasuan, aldiz, % 22,1ek), eta lanaldi osoan lan egiten dutenen erdia irabazten dutela, batez beste, lanaldi partzialean lan egiten dutenek. Baina, hori al da emakumeak gizonak baino soldata apalagoak izatearen arrazoi bakarra? Galdera horri erantzuteko, lanaldi osoan lan egiten duten gizonen eta emakumeen soldata konparatu ditugu, eta, egoera horretan ere, emakumeak baino gehiago irabazten dute gizonak: 1242 euro irabazten dituzte gizon gazteak eta 1119 euro emakume gazteak.

| 16 eta 29 urte bitarteko gazte okupatuak batez besteko soldata, sexuaren eta lanaldi motaren arabera |         |         |           |
|------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------|---------|-----------|
| (€)                                                                                                  | GUZTIRA | Sexua   |           |
|                                                                                                      |         | Gizonak | Emakumeak |
| Batez besteko soldata, guztira                                                                       | 996     | 1125    | 867       |
| Lanaldi osoan lan egiten dutenen batez besteko soldata                                               | 1195    | 1242    | 1119      |
| Lanaldi partzialean lan egiten dutenen batez besteko soldata                                         | 605     | 599     | 607       |
| Iturria: Gazteen Euskal Behatokia ("Gazteak eta enplegua Euskadin 2015")                             |         |         |           |

Ezin da esan, beraz, emakumeen artean lanaldi partzialen ehunekoa handiagoa izatea denik soldata-diferentzia horren arrazoi bakarra.

### **Enpleguak gora egin du gazteen artean, baina lanaldi partzialeko enpleguak ere bai, bereziki emakumeen artean**


Gazteen Euskal Behatokiak argitalpen berria aurkezten du: "Gazteak eta enplegua Euskadin 2015". Azterlan hau ia 2000 gaztek erantzun duten etxeko inkesta batean oinarritzen da.

Inkestak honako hauek aztertzen ditu: gazteen lan arloko esperientzia, lana eskuratzeko aukera, enpleguaren ezaugarriak kontratuaren eta lanaldiaren motari dagokienez, soldata, norbere konturako lanaren eta besteren konturako lanaren ehunekoa, sektorea, publikoa edo pribatua, eta horrez gain, langabezian dauden egoera eta enplegua aurkitzeko dituzten aurreikuspenak.


Datuek adierazten dutenez, hautsi egin da 16 eta 29 urte bitarteko pertsonen langabeziaren goranzko joera, eta enpleguari buruzko aurreikuspenak hobetu dira. Hala ere, lanean ari diren gazteen ehunekoak gora egin duen arren, aldi baterako lanaren kopuruak oraindik ere handiak dira, lanaldi partzialek gora egin dute, batez ere emakumeen artean, eta mila euro inguruko soldatez mintzatzen jarraitzen dugu.

Hona hemen nabarmentzeko moduko emaitza batzuk:

25 urteak bete baino lehen, gazteen zeregin nagusia ikastea da; adin horretatik aurrera gehienak lanean ari dira.



2013 eta 2015 bitartean enpleguaren kopuruek hobera egin zuten, eta lanean ari diren 16 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoak gora egin du % 30,9tik % 34,8ra; aldiz, behera egin du langabezian duten gazteen ehunekoak, % 18,1etik % 15,4ra.



Langabezia dauden gazteen ehuneko hori dela-eta, oraindik ere Europar Batasuna osatzen duten 28 herrialdeetako batezbestekotik gora gaude (% 9,1), baina Espainia osoa (% 19,5) baino posizio hobean.

### **Lanean ari diren gazteen lan-baldintzak**

Lanean ari diren gazte gehienek besteren kontura egiten dute lan sektore pribatuan, norberaren kontura lan egiten dutenen ehunekoa txikia da (lana duten gazteen % 6,1).

Gora egin du iraupen mugagabeko kontratazioak, 2013ko % 40,6tik 2015eko % 43,5era, baina lana duten gazteen artean aldi baterako kontratuen ehunekoa mantendu egin da, % 44,2. Autoenpleguak behera egin du.

Lanean ari diren gazteen heren bat lanaldi partzialean ari da; emakumeak, gizonak baino gehiago. Lanean ari diren ia emakumeen erdia lanaldi partzialean ari da, % 48,9; gizonen artean, aldiz, % 22,1.

2013 eta 2015 bitartean lanaldi osoko lanak zertxobait gora egin du gizonen artean, baina ez da hala gertatu emakumeen artean; are gehiago, lanaldi partzialean lan egiten duten emakume gazteen ehunekoak gora egin du ehuneko hamar puntu. Gizonek zein emakumeek lanaldi partzialean lan egiteko funtsezko arrazoia da ez dutela aurkitu lanaldi osoko lanik (% 62,6).

Batez besteko soldatak gora egin du, baina emakume gazteen soldatak behera egin du. Euskadin, lana duen 16 eta 29 urte bitarteko gazte baten batez besteko soldata hilean 996 € izan da 2015ean.

Hori batez besteko soldata da, baina diferentzia asko daude talde batzuen eta besteen artean. Lanaldi osoan lanean ari direnek batez beste 1.195 € jasotzen dituzte hilean; lanaldi partzialean ari direnek, aldiz, 605 €.

Gizonek gehiago kobratzen dute emakumeek baino: 1.125 € batez beste gizonak, eta 867 € emakumeek. Soldaten arteko diferentzia horren azpian lanaldi partzialak emakumeen artean duen hedadura handiagoa dago, baina hori ez da arrazoi

bakarra, gizonen lanaldi osoan zertxobait gehiago kobratzen dutelako emakumeek baino: batez beste 1.242 € gizonen, eta 1119 € emakumeek.

Azkenik, duten lanak euren prestakuntzarekin zerikusia duela dioen 16 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoa % 52,7 da, 2013an lortutakoaren antzekoa.

### **Langabezian dauden gazteak**

Langabezian dauden gazte gehienek laneko esperientzia dute (% 80,3) eta enplegua aktiboki bilatzen dute (% 82,8).

Enplegua epe ertainean (sei hilabete) aurkitzeko aurreikuspena asko igo da 2013az geroztik. Urte horretan langabezian zeuden pertsonen % 30,5ek lana aurkitzeko itzaropena zuen; 2015ean, aldiz, % 53,4k.

Langabezian dauden gazteen % 43,1ek egoera horretan urtebete baino gehiago eman du, eta emakumeek gehiago, gizonen baino. Eta langabezian dauden % 21,8k soilik jasotzen du langabezia-prestazioa.

### **30 eta 34 urte bitarteko pertsonen egoera**


Lanak eta laneko baldintzek hobera egiten dute 30 urteetatik aurrera. 2013 eta 2015 bitartean, langabeziak are gehiago egin du behera 30 urtetik beherako arteen baino, eta 30 eta 34 urte bitarteko talde horren barruan lanean ari diren gazteen ehunekoak gora egin du ehuneko 7 puntu 2013az geroztik.

30 eta 34 urte bitarteko okupatuak iraupen mugagabeko kontratu gehiago dituzte (% 61,0), lanaldi osoan gehiagotan egiten dute lan (% 77,2) eta soldata handiagoak dituzte (batez beste hilean 1.242 €).

Hala ere, alderdi batzuek ez dute hobera egiten adinak gora egin ahala; ez da nabarmen handitzen ikasitakoarekin bat datorren enpleguaren ehunekoa (% 55,7k soilik du bere prestakuntzarekin lotutako lana), eta ongi ordainduta daudela uste dutenen ehunekoak ere ez du gora egin. Gizonen eta emakumeen arteko diferentziak oraindik ere agerian geratzen dira adin horretan.

30 urtetik beherako pertsonekin alderatuta lana dutenen ehunekoak nabarmen gora egin duen arren, talde horretan pertsonen % 21ek dio langabezian dagoela, eta haien erdiak urtebete baino gehiago eman du langabezian. Sei hilabeteko epean enplegua aurkitzeko aurreikuspenak gora egin du nabarmen 2013arekin alderatuta, 2015ean % 28,5etik % 46,3ra, baina, hala ere, ezkorragoak dira 30 eta 34 urte bitarteko langabeak 30 urtekoak baino.

### 16-29 eta 30-34 urte bitarteko gazteen okupazio nagusia (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, "Gazteak eta enplegua Euskadin, 2015"

**2016ko urtea 16 eta 29 urte bitarteko gazteen langabezia-tasaren beharapenarekin bukatzen da**

**2016ko laugarren hiruhilekoan gazteen langabezia-tasa % 22,1koa izan da**  
***Aurreko urteko hiruhileko berdinarekin alderatuz hiru eta erdi puntuko beharapena dago***

Biztanleriaren Jardueraren Arabera sailkatzeko inkestaren (BJA) 2016ko laugarren hiruhilekoari dagozkion datuak argitaratu berri direla-eta, Euskadiko Autonomia Erkidegoko (EAEko) gazteen langabeziaren egoera aztertu du [Gazteen Euskal Behatokiak](#).

Eustatek, Euskal Estatistika Erakundeak, hiru hilean behin lantzen du inkesta hau eta 16 eta 29 urte bitarteko biztanleriaren datuak helarazi dizkio Gazteen Euskal Behatokiari.

#### **Zer adierazten du langabezia-tasak?**

Enplegurik ez duten baina lana aktiboki bilatzen ari diren pertsona aktiboen (lan egiteko moduan egonik, azken lau asteetan lana bilatzeko gestioaren bat egiten duten pertsonen) ehunekoa adierazten du langabezia-tasak. Bertan ez dira sartzen lan bila ez dabiltzan ikasleak edo lan egin ezin duten ezgaituak.

#### **Zein da gazteen langabezia-tasa 2016ko laugarren hiruhilekoan?**

EAEko 16 eta 29 urte bitarteko gazteen langabezia-tasa % 22,1 da 2016ko laugarren hiruhilekoan, biztanleria osoarenarekin konparatuta ia bikoitza (% 12,5).

#### **Badago alderik sexu edo lurralde historikoaren arabera?**


Emakume gazteen langabezia-tasa (% 22,5) gizonena (% 21,8) baino handixegoa da.

Lurralde historikoei dagokienez, ikus dezakegu Araban gazteen langabezia-tasa beste lurraldeetan baino baxuagoa dela (% 15,4, hain zuzen ere), Bizkaia atzetik doa (% 22,0) eta azkenik, Gipuzkoa (% 25,3).

#### **Zein izan da bilakaera?**

2016ko hirugarren hiruhilekoarekin alderatuz langabezia tasa 1,5 puntu jaitsi da eta 2015eko hiruhileko berdinari erreparatzen badiogu portzentajeazko 3,5 puntuko jaitsiera eman da, % 25,6tik oraingo % 22,1era pasatuz.

**EAEko 16-29 urte bitarteko langabeziaren tasa. 2016ko IV. Hiruhilekoa,  
2015eko IV. hiruhilekoaren tasarekin konparatuz**



*Iturria: Gazteen Euskal Behatokiak eginda, Eustaten datuak (BJA) oinarri hartuta*

Datu hauek [Gazteen Euskal Bahatokiaren Estatistiketan](#) ere kontsulta daitezke, **Lana** ataleko **Jarduera, Okupazioa eta Langabezia** azpiatalean.